

zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

NON ZER

● LEKU EDER BAT	
Anatsan	3 garrean
● ONGI-ETORRIA OZKABARTE-RI	
Larresoro	3 garrean
● EUSKAL GAJETAN BARN	
Knörr	3 garrean
● EZ DEZAGUN «OLENTXARO»-TU	
OLENTZARO	
Kapanaga	6 garrean
● GABON-KANTAK	
Lekuona	13 garrean
● OLENTZERO	
Barandiaran	14 garrean

GABONAK

Ator mutil etxera

Ondo jaso dute gure aurrekoek Eguberri-tako albistea. Jesusen jaiotzak dakarkigun Berri Ona: itsuak argi, giltzaperatuak aska, ildakoak pizt.

Asko ziren urtearen buruan etxetik eta erritik kanpora bizi behar izaten zuten euskaldunak. Itsasoan, arrantzoan, batzuk. Mendian, artzantzan edo ikazkintzan edo zurgintzan besteak. Ikastetxeren batean edo soldaduskan edo morroi edo neskame edo aserrez edo beldurrez urrundua, edo alferkeriaz edo lanik ezaz eskale bihurtua beste zenbait.

Dena den, etxetik urruti, behintzat. Horregatik deia.

Ator, ator mutil etxera
gaztaina zimelak jatera,
Gabon gaua ospatuzera
aitaren ta amaren ondoan.
Ikusiko dok aita parrezka
ama be poz atsegiñez.
Eragiok mutil
aurreko danboliñari
gaztainak erre artean
gaztainak erre artean
txipli, txapla, pum!
Gabon gaua pozik igaro daigun.

Gabon mezua: pake mezu da, alaitasun, elkartasun, argi, bizi, askatasun eta osasun mezu.

Ez dezakegu kristauok hori ahantz. Mezu horren albistari gara. Gogoan izan dute eginkizun hori Donostiako eta Bilbaoko gure gotzai Argia eta Añoberosek. Justiciaren ministroarengana jo dute Bueno Monreal eta Zirarda lagun dituztelarik, dirudienez, giltzaperatuak askatzeko eta Zamorako espetxea kentzeko eskatzera.

Sukaldeko epela opa diegu, Gabonetan, etxetik kanpora diren guztiei. Ezbeharrez edo bizibeharrez, edo zigorrez edo beldurrez etxetik urrun diren guztiei. Eta hori gure esku ez dagoenez gero, ahal duten guztiei etxera biltzeko eta hortxe igarotzeko Gabon aldia, eskatuko genieke.

Ez da enskal ohitura, ez eta enskal legea egun hoiek dantzategietan eta jatetxeetan igarotzea. Enskal jaiet muzin egiteko ordez bidezkoago litzake, batez ere garai eta egoera hontan beste hanei gitea.

Gabonak, gure oroimena, gure bihotza eta gure eskupekoa behartsuei eskeintzeko garaia. Zorionekoak honelako Gabonak.



ikusmirak eguneroko gaietatik

NERE BORDATXOTIK

Bedaio'ko Agirrezabala'k eta Naparroa'ko Errazkin'go Argiñarena'k korrika-apustu bat zuten egiña abenduaren ogeitalauean jokatzeko.

Egun ortan, ordea, ikuskizun asko dago.

"Endaleta" ta Mendizabal bigarrena dira Azpeiti'n jokatzekoak.

Bestalde, orduantxe Santo Tomaseta'ko dema sariketaren azken eguna, Donosti'n.

Au guztia kontuan arturik, korrikalari biak beren neurketan zerbait atzeratzea erabaki dute.

Gabon egunean jokatu bearran, Eguberri bigarrenaz jokatu dira: abenduaren 26'garren egunean.

Ordua: arratsaldeko lauterdiak.

Tokia: Tolosa'ko zezen plaza.

—oOo—

Argiñarena naparrak, Agirrezabala gipuzkoarrari, eun metroren bentaja ematen dio zortzi kilometroko bidean.

Argiñarena'ren lana: 8.000 metro korritzea.

Agirrezabala'ren lana: 7.900 metro korritzea.

Irabazlearen saria: 160.000 peza, alde bakoitzetik larogeiña milla jokatzeko dituzte-ta.

Dirujasotzailea: Tolosa'ko "Bar Cantábrico"ko nagusi jaunna.

Antonio Mari Labaien eskaltzain (akademiko) ezagunak, onoko lerro giartsu aukeratu dituzte:

"Euskaldunak", Orixe'ren poema eder, arrigarriak, ezteula barruan maitasuneko ipuin aundirik eta gaizki-esaka ari zaizkigu.

Mikel eta Garazi'ren alkar-ganako maite-miña ez omen da ari mee bat besterik.

Ori diotenak eztera oartu, nere ustez, poema osoan zer nolako lokarri sakon eta azkarra, zer korapillo estu ta kibisto leun haña iraunkorra, eundua, agertzen dan bi gazteen maitasunean".

—oOo—

Onela jarraitzen du Labaien jaunak:

"Zer bada?"

Elsa Scheelle'n nabarmenkeriak al dira euskaldunok erdutzat artu bear ditugunak?

Gure gaitzak apal izatez ba karrik senda ditezke.

Lenagoko euskal kristautasuna estuegia, "jansenista" zala, illuntasunez bete, akarra egin digute.

Nik, neuk, alderantziz, euskaldun fededuna gizaki alai, irrisu ta jostalaria, bizi-pozez baliatzen zekiena zala esango nuke.

Gaurko "existencialista"k baiño areago.

—oOo—

Katolikotasunari asko zor diogula uste du Labaien jaunak, orain askok ala aitortu nai ez padute ere.

Gure oiturak eta izate on-tzen lagundu digu katolikotasunak, tolosar idazle argiaren iriziz.

Baiña geren erorialdietan nola altxa ta bide zuzenera nola joan berriro, Jainkoaren legeko amar aginduak erakusten digute ongien".

Akatsak akats, utsegiteak utsegite, ortan gaude gu ere, adiskide.

Bide oberek eztegu ikusten.

—oOo—

1935'garren urteko maiatzaren 12'garren eguna zan.

Aizkolari artean izandako burrukaldirik latzenetako bat bezela juzkatzen dana, Arria zarrak eta Agiñeta'k egun artan jokatu zutena izan zan.

Biak bizi zaizkigu oraindik, zorionez. Gaurko Arriatarren aita da aitatten degun Arria zarra.

Tolosa'ko zezen plaza erabaki zan auzia. Bi edo iri aizkol-kolperen aldearekin irabazi zuen Arria'k. Pentsa zer izango zan ango estuasuna.

Arterainokoan inork etzuen alako markarik plazan azaldu. Urte luzeetan itzegin du jendeak egun artan aizkolari biak egin zuten lan arrigarriaz.

—oOo—

Arria irabazlearen denborak era ontan izan ziran egun artan:

Lenengo oinbikoa (72 ontza),	4'45"
Bigarrena,	10'30"
Irugarrena,	17'16"
Laugarrena,	23'19"
Bosgarrena,	30'00"
Seigarrena,	35'57"

Ori da Arria zarrak sei oin-

biko enbor ebaten pasa zuen debora.

Etzuen urrutu Agiñeta trebea. Onek 36 minutu bear izan zuten juxtu-juxtu.

—oOo—

Nolako egurrak zituzten? Gozo xamarrek? Traketsak? Guk ez jakin orixe. Gerra aurreko kontuak esaten ari gera, ta geroztik egin du euria pran-ko.

Gu ez giñan ikusleen artean. Aizkolari beldurgarria zan Agiñeta ere.

Gorputza zuen beste onak baiño txikixeagoa; ariñagoa zan pixuz. Eta onek aizkorarako, asko ere asko esan nai du.

Kalidatez etzegen Agiñeta baiño ohea izaterik. Arria ta Errekalde'ren ondoan txiki ematen zuen Agiñeta'k. Aundiz ondutzen zuten.

Bestela nork burutu arekin?

—oOo—

1928'garren urteko apirillaren 8'garren eguna.

Agiñeta ta Errekalde, aurrez-aurre, Tolosa'ko plazan.

Zumarraga'tik tren berezia (especial) eratu zuten. Jendeak, denbora luzean, etzuen bestetaz itzegin.

Bi milla esleku jarri zituzten

egurren inguruan, plazako ondar gainean.

Egun artako lanak ezitirudi gizonentzat egiña.

Amabiña 60 ontzako ta seiña 66 ontzako enbor, gizon bakoitzarentzat.

Agiñeta'ren erakuslea: Arri-zeta.

Errekalde'ren erakuslea: Keixeta.

Enbor guztien kontu, Errekalde'k, 96 minutu ta 48 segunduan eman zuen.

Alperrik ler egiten eta anima ateratzen ari zala ikusirik, amalaugarren egurrean erretiratu egin zan Agiñeta.

Bein baiño geiagotan entzun genion auxe Keixeta zanari:

"Bear bezela preparatu ezkerro, nik ezagututako aizkolariarik onena Errekalde zan.

Baiña preparatzeari uzten bazion, arritzeko moduko beerrakoa egiten zuen egun batetik bestera.

Neretzat aizkoran egiñik dagon markarik aundiena, Agiñeta'ri irabazi zionean Errekalde'k egindakoa da".

Aren semea zan oraintxe dala urte batzuk il zan Errekalde gaztea. Aizkolari ikusgarria, aita zana ezezik.

BASARRI


ZURE AURRENTZAT

QUETZAL BABY

UZTAILAK 18-ko ENPARANTZA, 9

Urrutizkiña: 42 53 77

— DONOSTIA —



zeruko ARGIA

Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Buriada-Pamplona).

Donostian: Okendo, 22

Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Berruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aidez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Zuen Zapatariak

Nere ogia klientearen eskuetan nola dagon, badakizute urte guzian zuen morrontzan nun nagon; Egun auetan ospatzen dira emen Eguarri ta Gabon, ta nik nai nuke turroiak [aurten zueiri egitea on, ta Urte-Berriak sortu ditzala danontzat milla zorion!

MANUEL ZUBILLAGA

Prim kalea, 53. T. 423443

lenengo saria

LAND-ROVER, berebilla edozein bidetarako, neurriz, luzeana, 62 zaldiduna, diesel-motorra, metalzko zapaia ta 900 kgs. eraman ditzakena.

bigarren saria

BIURKOR - TRAKTOREA: 18 zaldiduna. Goldeak, irautilleak eta erakartzezirgak, osatzen dute traktorea.

ESKERRIK ASKO

Urte berrirako bakoitzak arpide berri bat egin dezan jarri dugun oharrak arrera onik izan du irakurleen artean. Arpide berrien izenak emanaz idatzi duzenoi, bihotzez, **ESKERRIK ASKO**.

Oraindik bidaltzeko zaudetenak idatzi dezazuela eskatzen dizuegu, eta zuei ere, alde aurretik, **ESKERRIK ASKO**.

Era berean, **EGUBERRI** zorionsua igaro dezazuela opa dizuegu.

● diru-jartze-epea: lotazilla'ren 31 arte

Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

EUSKAL ILDOTIK

Ez da aski iraultza egiteko euskaltasunean gelditzea. Desberdintasun eta bidegakeria zapaltzaileak ere kendu behar dira gizarte mailak berdinduz. Eta muino eta tontor aundiegia daude gure gizartean axala bakarrik piska bat urratuz eta goxatuz zuloak betetzeko.

Baina euskal ildotik egin behar da lur-arroketa hau lurrarekin batera gizona bera ere lurperatu eta zuloan sartu nahi ez badugu behintzat.

Ibaiaren zurrumbiloi datozen arriak desberdinak datoz itsasora. Kondairaren zurrumbiloi datozen gizonak ere desberdinak datoz mundura.

Ez du gizona desberdina egin iturri askotan sortua izateak bakarrik. Bada munduan enda bat baino gehiago. Badira odol-taldeak. Desberdinak dira zenbait iturri, desberdinak hoietan sortzen eta ibaietan biltzen diren urak ere. Otxak batzuk, be-roak besteak. Garbiak eta zikinak. Karekiak eta meatzkiak. Edateko onak eta txarrak. Osasungarriak eta pozoidunak.

Ez da gizon txarrik. Bai, ordea, desberdinik. Badu euskaldunak zenbait berezitasun sortzez ere. Guk ez diogu horri jaramonik egiten.

Lurralde aberdinetan kokatzeak eta bizitzeak sortu ditu bapitat berezitasunak eta aldeak. Erasan aundia egin dio lurra gizonari. Lurraren kizkurak edo zabalak, mendien tontorrak eta sakonak, lurgainaren jantziak eta azpiaren gizenak, landareen ugartasun eta urritasunak, pizti eta abereen izaera, biziera, sena eta ohiturak, ibaiaren marmarrak eta itsasoaren orroak, eguzki eta ilargiaren jirabirak eta izarren keinuek, otzak eta beroak, bustiak eta lehorrak, ilunak eta argiak... horrek guztiak tajutu du gizona.

Inguru berdintsu horrek gizon berdintsuak sortu ditu. Eta inguru desberdinak gizon desberdinak. Ez ditu gizonak egoera eta baldintza berdinak mundu zabalean jasan. Entzuten dituen otsak, ikusten dituen edertasunak, jasaten dituen erasoak ez dira berdinak leku guztietan. Izadia du gizonak lehen maixu. Lurra izan du izketan irakatsi dion ama. Amaren antzekoak dira umeak ere. Ama askok ume asko, erri asko.

Euskal Erria dugu amalurraren umeetarik bat. Pirineo alderdian aspaldiko mendetan, milaka urtetan, bizirik dirauan Erria. Kultura bereziko erria: bizieraz, teknikaz, etxe-egituraz, lege-ohiturak, izkuntzaz, erlijioz, folkloreak...

Lurraren eta lehenaren zantzu berezia darama gaurko euskaldunak. Ez dezake utz gizon izatea ukatu gabe. Ildo horri jarraitu behar dio landuz, osatuz eta gizonagotuz.

Ezin uka euskal lur eta kondairari aurrerabidean beste alderdi batzuk sortu ez zaizkionik: kalea eta lantokia. Ezpairik gabe pilloan bizi beharrek eta lantokian, nagusi baten mende, lanean zaindurik eta neurturik jardun beharrek beste jite eta taxu berezi eta berri bat emango dio. Baina alderdi berri hau erdal-sustraitan edo euskalsustraitan errota izan dezake.

Guk inolaz ere onar ez dezakegun haxe da: erdal-sustraitan oinarritua izatea. Ezarritako zerbait artu beharko bait luke. Zapalkuntzaren bidez txertaturiko mentu berria luke. Gizonaren nortasuna eta izaera zapuzten dituan mentu arrotza.

Horregatik gogor egin behar zaio gainean dugun erakoari: irratiak, telebistak, eskolak, eguneroak, eta abarrek dakarkituen erasoari.

Beraz ez dugu onartzen euskal artistei, musikoei, izkuntzalariei, aldizkariari, ikastolei, abeslariari, dantzariari eta abarrei egiten zaien borroka. Ez eta euskal jaialdiei, Olentzero eta honelako ohiturei egiten zaien muzina. Hoiek desegin ez, ondu eta obetu egin behar dira baizik. Hoiek kentzea erriari arnasa kentzea da.

Euskal ildotik ez doana jauntxokerian jausi da eta zapaltzaile bihurtu.

Ongi-etorria Ozkabarte-ri Euskal

Gaietan Barna

Bagenekien (edo jakin egin behar bederen) Najera, gaur egun Errijoako herri, Nafarroako hiriburu izana dela.

Bagenekien ere (edo jakin egin behar bederen) 1235 aldean, Errijo-jatarrek tribunaletan euskaraz hitzegiteko eskubideaz Gaztelako «merino» delakoak, kanpotikako gobernari berriak, kasorik egin ez; eta erdaraz hitz eragin nahi izan zuelako, Ojakastroko alkateak preso altxatu zuela.

Bagenekien (edo jakin egin behar bederen) J. B. Merino Urrutiaren eta besteren lan jakingarrien berri: orain dela hamabi urte argitara zuen honen guztiaren bilduma mamitsu bat Añamendi Sorkak, 14 gna.

Betidanik harritzen gintuen euskaldunok Errijoako leku-izenen letrorak azkengabeak: aspaldiko Karagarri (erd. Calahorra), Kararre-ren kide itxuraz (erd. Carcar); eta Grakurri (erd. Alfaro). Eta karta bat begiratu hutsaz hauek ikusten gertuen segidan: Ezkarai, Aiabarrena, Herramelluri, Otxanduri, Ollauri, Leiba, Sajazarra, Zihuri, Bizkarain, Angiano (nor ez oroituko Bergarako Anziozar-er?), Arizeta-ko Birjina (erd. V. del Robledo), Leza hibaia, Isasa mendia, eta beste anitz eta anitz. Euskal izenen eta aztermen jarro oparaok guran mukuru egini, sinespera jartzen ginen.

Hori guztia, eta are askoz gehiago jakinik ere, «La Rioja desde sus albores» liburua irakurri eta ikusita, txunditurik gelditu gara. Gil del Rio jaunaren liburua haurta daitekean hitzik egokiena haxe baitzake, nik uste: harridura. Errijoaren euskaltasunak harritu egiten gaitu.

Zergatik harritzen? Gil del Rio-ren liburua (india eta zauritu ere egiten bide gaitu geure barne-mulneta; eta geure ez-jakinak estali izan digun euskal eskualde ahan-tziarekiko damua bizi-bizi sendiarazten. Ulertu eta sinetsi ez ezik, azkarki senditzen dugu orainoan. Ikutu ere egiten bide dugu Santo Domingo de la Calzada delakoa zinez dela Ozkabarte, eta gaur arte egia izkutatua zaigula. Liburuko foto ederrek kutsu berbera uzten digute. Eta idazlearen luma-bihozkadak gure bihozkada bihurtzen dira.

Aspaldian Merino Urrutiak hasitako azterketak, dirudinez, askoz aurrerago eramango gaitu urteen buruan: Errijoa, jakintsuen haus-

narketaren mailan aurrenik, gisa denez, eta herriaren sendimendua-renean gero, Araba, Lapurdi edo Bizkaiaren anaia egiazko bihur dai-teke.

Folkloreak, pilotaz, akelarreez, eta anitz ohitura zaharrez zer esanik ez dago: Errijoak euskaldun aurpe-gia du osoki. Eta izana ere bai: XVI mendean galdu zen euskara Errijoako Mendebaldean. Askoz ere beranduago, hortaz, Bizkaiko, Araba eta Nafarroako herrialde bat-zutan baino.

Oinarriak findu beharra dago, ordea. Euskal izenen mailan bada zer egini. Eta ez Errijoan bakarrik.

Lehen-lehenik Riojaren izenaz be-raz. Ezen Rioja hori «Rio Oja» ba-litz (sineskaitza erdarakada hori as-paldiko mendeetan!) ulertu ezina bailitzake «La Rioja» esatea eta ez «El Rioja». Badirudi, beraz, «La-rrioja» hitza azaldu behar dela, osoan hartua; Elorrio azaldu behar dela bezala, eta ez zenbait aldiz irakurri den «El Orrio»; Puente-La-rraina (= Larrainzubi, Gares), eta ez Puente la Reina; Casa-Larraina, eta ez Casa la Reina; Labarrieta (= Olabarrieta), eta ez Las Barrie-tas; eta abar. Hor ditugu ta Larra-riaga, Larrainza, Olabarrieta, Elho-rrriaga, ...La Reinos, era berean, Larrainosa-tik bilatu behar litzake ene ustez.

Rioja, era berean, «Larrijoa» hitz osotik azaldu behar (gauza bera La-rrun, frantsesez La Rhune!). Hots, antzinako Barolhak (eta dokumen-tuetan agertzen den forma zaharra «lh»-z idatzita dator mari-xukaldean euskararen mailatik irten diren guz-tiek dakiten bezala) Baroja eman badu, antzinako Zubilhanak Subija-na, eta Urbillanak Ormijana, Larri-joa hori LARREALHA-k emana duke. Hain zuzen ere, Iparraldean badago La Réole izeneko herri bat, Garona hibiaren hegian.

Baina leku-izenen azterketa hori ez da gaurko gure arazoa. Hizkun-tzalariek garbitu beharko dute, ja-kintzaren mailan eta hizkuntzaren zientziari dagozkion frogabideak ba-liatuz.

Toponimiaren maila horretan gel-dituko ote da, ordea, Errijoaren ara-orain dela lau, bost edo zazpi men-de Errijoan gertatzen edo mintza-zena? Aspaldiko kontuak!

Hots, irakurleak dakikean lurgor-rian etzanda. Gil del Rio-ren libu-ria irakurtzen ari nintzelarik, «In-formación Comercial Española» al-dizkaria hartu duen (467-468 banako bikoitza); eta teknokraten izenpu-ruan hau irakurri nuen: «Hacia una nueva región vasca». Zenbait eko-nomistaren lan-bilduma gotor hau, datoz josia, Madrilleko Unibertsida-dean erakaste dagoen Saenz de Bu-ruaga errijoatarrak prestatu du; eta bildumaren ideia nagusizat hau ageri da geroari buruz: «la adscrip-ción de la Rioja al área vasco-na-varra». Egia esateko, dio S. Burua-gak, proposatzen den Euskal Herri «berri» hori ez da, izan, Euskal He-rrri zaharra baizik, Antso Handiaren Nafarroa zabala alegia. Errijoa, dio gutxi-gora-behera, Euskal Herriko atal bat da; baina «sus raíces vas-conas fueron más rápidamente ro-manizadas». Errijoatikako ikuspegia Nafarroa eta Euskal Herria izan zi-ren antzina; eta ondoko urteetan Nafarroa eta Euskal Herria izango dira.

Aspaldiko kontuak, horrela, BI-HARKO kontu bihurtzen ari dira; eta Errijoako ekonomiariek hartzen bide dute kondairagileen segida. Geografiak, Kondairak, Folkloreak, Ekonomiak, eta... errijoatarraren be-ren nahiak, bat egini, Santo Do-za? Horrela balitz, zer axola guri mingo de la Calzada Ozkabarte izan zela eta Ozkabarte izango dela go-gorazten digute.

Ate joka ari dira Hegoaldean. Dei hau, bestalde, ez dugu lehe-nengo aldiz entzuten.

Jakingo ahal dugu aditzen, lelo hertsiki batzuk bazterten, eta urri-kerik gabe ukatutako anaia etxen onartzen!

LARRESORO

Leku eder bat

Gure Euskal Herri honek baditu toki apartak, ondikotz, sarritan geuk ezagutzeke ditugunak; baina jadanik atzerritarren bitxi direnak. Antzeko zerbait gertatzen da Bedua, Oikina, Askizu eta beste anitz pa-raje iluragarriekin ere.

Honela azken urteotan ikusten dugunez, Ipar Euskal Herria, beste xederik gabe, frantsesen oporleku eta udatoki baketsu bilakatzen ari zaigu. Urtez-urte, turistaren multzo etorria goraka doa. Are gehiago, eta hau benetan tamala da, ipar-raldeko hiri nagusienak infraes-truktura (Baiona, Biarritz, Donibane biak, Askain, Getari, Angelu, Sara, Hendaya, Atarratze, e.b.) turismo-aren ardatzari atxikitzen ari zaiz-kiote. Kosmopolitismoa omen da herrioren etorkizuna, Biarritzeko zen-bait jaunek dienez.

Fenomenoa ezin garbiago ager-zen zaigu. Aurten bertan udaldi-aren slogana «Visite el País Vasco 1972» izan da. Udal eta komertzio elkarteek bat egin dute plangintza hau tajutzeko, aurtan Baiona eta Biarritzeko komisioak burubelari sarturik ibili dira turismo-erakarpe-na sortu nahirik, Europako aberri boteretsuenak bisitatuaz. Lehen hi-ruen bat hilabetetako izaten ba-zen udaldia; aurtan Martxoetik hasi eta Urriaraino luzatzea erabaki zu-ten.

Hona hemen gure Iparra «Côte Basque» bihurturik! Turisten jos-tailu, turistei so bere etorkizuna tajutzeko. Ipar Euskal Herria ez jen-de bakarrik, lurrez ere husten ari da. Gero eta baserri gehiago Pa-risiko burgesen esku. Honen ondo-riok azter baditzaugu, lehen begi kolpean ikus ahal izango dugu Ipar Euskal Herria DESAMORTIZAZIO garaian bizi dela. Hots, Hego al-

deko herriek 1837gn jasan zuten fenomeno; baina, kalitatez arras diferente dira bata eta bestea. Hego aldean elizaren ondasunak (nos-ki ez gaztelerrian hainakoak) sal-buespen batzuek ezik, herriko in-diano, jauntxo eta lurjabedunen es-ku gelditu ziren. Ipar aldea aitzit-ik, Desamortizazio Inperialista bat, fuintsez erabat arrotza eta zanpa-tzailea jasanten ari da. Eta hone-tan dago gakoa.

Larresoren artikulua miregarriak, esaten ari naizenaren lekuko bes-terik ez dira.

Aurtengo Sanjuanetan Donibane Lohizungo mitin batetan, hala en-tzun ahal izan genduen «le Pays Basque c'est accueillant pour le turiste». Mitina frantses «oroka-rraan» egina izan arren, hantxe ere ez zen faltatu bukaerako hitz lau-sengarria: Gora Donibane!

Guk behera erantzun genion. Ze-ren gisa hartako gorakadarik ez bait diogu opa ez Donibaneri, eta ez beste inori. Zeren haiantzako ez bait da Euskal Herriko Doni-bane; aitzitik oCte Basqueko Saint Jean De Luz, Sud Ouest-eko de-partamendu soil bat baizik. Arra-zoia zeukan Larresoro suharrak iz-ko Abenduaren jaiarriak ilu bate-tan, esan zidanean: «Xarmenta da Donibane turista gisa begiratze-ko; baina hitsa herri-kezka duanaren-tzat».

Zoritxarrez gure Iparrean Larre-soro gutxi dugu.

Ipar aldeko herriez aparte, hego aldeko batetaz ere zerbait esan na-hi nuke. Hain zuzen Beduaz edo hobeto esan da Beduak niri egin didan zirradaz.

Arrua behetik Zumaira bitar-tean, eskubi aldera dagoen bidean barrera abiatu eta berehala iristen

da Beduara. Bedua, Zumaatik hur-bil bada ere, Zestuako parte egi-ten da.

Dozenaren bat etxe du, denak elkarren ingurumarian, eta berauen erdian, errege dirudiela, antzinate-ko «Lonja-etxe» bat, XIgn mende-koa. Ibai ertzean, barkogintzarako olategi kozkor bat, badirudi aita Larramendik XVIIgn mendean aipa-zen zituen ola haietako bat dela.

Beduaren paisajea sakona eta se-rioa da, lehen begiratuan badirudi ezer esaterik ez dula nahi, haserre-aurpegia ipintzen du. Agian bera bilatu dugulako. Baina bera ingu-ratzen duten zelai, baratza eta oi-hanek, Artadiko Mikel Deunaren mendia lekuko duelarik, lirismo xar-mat bat kutsatzen diote. Benetan hunkigarri!

Kostaldeko toki bat delarik iz-ikutuan gorderik dago Bedua, txi-larrapeko habia baten antzo. Ixi-lean iraua nahi du bai, leiho eta ateak itxirik etxe-ataritan haur ga-raxiririk gabe, inon bere existenzia aldarrikatzeke. Bedua, arrautz azala zulatuz ez duen txitaxo bat da, haatik haren izkutu nahia, haatik oraino Bedua berotasun handi ba-ten beharretan da. Etorkizun itxa-ronpentsu batera itzar dedin.

Beduaren mugetan, Urola ibaiak jotzen bere azken sarrera itsasoan murgil dedin. Bedua errekek itsaso bihurtzen diren lekuko, langa ja-soetan dio Urola murrizari itsa-soan desegin dedin. Eta honetan ere Bedua arras Unibersal eta Eus-kaldun agertzen zaigu. Tipi izana-gatik Europa zale, ixilik egonatik funtsean beti present.

Gaurregun, «aurrerapenaren» ize-nez egiten diren ankerkeriak, ez bezate arren Beduaren habia go-zoa zapuztu. Etorriko bait zaio Be-

duari ere Ekialdeko eguzki disdi-ratsua, leiho-ateak zabalduraziko dizkiona. Gaurregun estaltzen duen arrautz azala birrinduko diona. Eta orduan Bedua, benetako Bedua izan-go da. Hots euskaldunontzako, le-ku eder bat.

ANATSAN

G. K.



DENETARIK

Joan zen hilean euskarazko ikasketak hasi ziren Donibane Pasaian. Hiru mailatan hasi ere, ezer ez eta zertxobait dakiteneztzat lehen biak, alfabetatze mailan, berriz, hirugarrena, enuskalduntzat alegia.

—Donibane Pasaian bertan, Oiartzungo Intxitxu taldeak "Aralar" deritzan pastoral tankerako antzerkia aurkeztu zuen abenduaren 16an. Honako antzerki saio hau "Itxas-mendi" mendizale elkarteak eratu zuen, elkarte berreko dantz taldearen alde.

—Legazpian eratu zen idazlehiaketan, Zumarraga, Urretxua eta Legazpia bertako hirurogeita zazpi haur eta umek hartu zuen parte euskarazko sailean. Sariak ematea urtarilaren 14ean izanen da, goizeko 11etan, "Legazpi" Eskoletako Gela Nagusian.

—Abendunaren 31an. Gasteizen, "Manuel Iradier" kanta taldeak urtero ohi duen Gabonetako Konzertoa eskainiko du. Harako kanta saioa "Principal" deritzan antzokian eratu da.

—Egun hautan, Gabon inguruan alegia, argitaratzeko da "Euskalduntzen" delako euskara ikasteko metodoaren bigarren alea. Honelatsu agindu ziguten duela hilabeteren bat egileek, eta beste honenbeste irakur ahal izan dugu Bilbaoko egunkari batetako euskara sailean.

BASERRITARRAREN EGUNA

Agindu bezala, hilaren 9an, larunbat arratsaldean, Markinan ginen, bertan ospatzen bait zen Baserritarraren Eguna.

Goizetik eratua zen agintari eta eratzailen biltzar nagusia. Markina eskualdeko egoeraz eta beste mintzatu zen, bai eta hiru eskari egin ere bertan zen Madrileko Agrikultura Ministeritzako ordezkariari. Hona hemen harako hiru eskariok:

—Egin daitezela beharrezko estudio eta ahaleginak, baserrietako lur sailak txikiagi era ez daitezela. Aitzitik, erabaki dadila —errentabilitate bati atxikiz— zenbaterainoko txiki izan daitezkeen, handik beharakoei irtenbide bat eskain diezaien.

—Beharrezko araudiak ere jarriak izan daitezela, baserrietan batek bere baserria utziko balu, eta bere lurraldeak ordea ortugintzarako balio izan, ez dezala pinurik erein ahal izan.

—Argi indarrak ez duten hauzoei ahalik eta azkarren lort diezaiela beharrezko indarra, etxeko premietarako ezetik, bai eta korta, soro eta basoetako zereginetarako ere baliagarri gerta dakien.

Eguerdi inguruan, aldiz, baserriar bakoitzak aurkeztu zituen sorta ederren sariketa eratu zen. Epaia mahalkoak, bertan bilduak ziren fruitu, emaitza eta hegaztiak banan banan ikertu eta aztertu zituzten, bai eta iritzia eman ere ondoren. Hona hemen lehen sarituak: 1.—Santos eta Boni Aldazabal (Berriatua). 2.—Frutos Aulestiarte (Markina). 3.—Leandro Alzibar (Mendexa). 4.—Juan Maria eta Matilde (Mallabia).

Taldeak ariketan, berriz, lehen saria ez zitzaion inori eman, hutsean lagatzea erabaki bait zen. Bigarrena, aldiz, Bolibar-Zenarruzako "Alkartasun" izeneko elkarteari.

Behar bada, aurretik ez dute Markina eskualdeko baserriarrek sorta larregirik eskaini. Onak bai, baina ez askorik. Horrez gainera, zenbait baserriarrek azaldu zuen gauza asko eta asko —piper, gazta, tomate etab.— ez zeuden salgai, sariketarako erakutsiak soil soilik baliz. Komeni lizateke halakoetan aurrez jakinaraztea edota hartaz zertxobait erabakitzea, alferriko elkarrizketak eta erdi haserreak gerta ez daitezela.

Bestalde, baserriarren emaitzak nahiko urri agertu ziren han bildu zen jendetzarako. "Stand" delako mahaiak, berriz, oso hanka motzak, ia ia lur jota, eta lehen ilarakoak ezik, beste inork ezer ikusi ezin hainakoak.

Beraz, nahiz eta aurtengoa ere ontzat eman, behar bada, salerosketa nolabait finkatu eta zehaztu gero, jendearentzat toki zabalagoa gertutuz, frontolko sar tu irtenak arinduz, mahai beheko "astoak" apurtxo bat goratuz, eta agian, erakusketak beraren inguruan bertsolari edo beste motaren batetako jaialdiren bat edo beste programatuz, benetan guztiz egun zoragarria molda dezakete markinarrek "Baserritarraren Eguna" delako jai honetaz.

Baina, noski, hau guzti hau sagar ustelaren distira hutsa lizateke, urtean barrena baserriarrek beren lanetan arituko ez balira. Baina, nonbait, ez horren beldurrik. Euskaldunok betidanik izan ohi gara saltzaille baino langile hobeak.

OLENTZARO

Olentzaroak badu halako antzinako oihitura sakon bat Nafarroako zenbait herrietan, Lesakan eta beste edozein tokitan, adibidez. Baina aurretik, ohizko herrietan ezetik, azken ehundaka urtetan eratu ez den (noizbait eratu ote?) herri batetan eratzeko da, Tudelan, alegia.

"La Teba" deritzan elkarteak asmo honi ekin omen dio kementsu; Iruñean egon bide dira harako elkarteokook, "Olentzaro" delakoa eta gainontzeko xehetasunak nola moldatu ohi diren ikasi nahiz.

Euskal giroa nabari da Tudelan. Euskaldun kontzientziaz jabetze bat ezagun da zenbait inhardun eta mintzalditan. Hasiera batetako dantza eta txistulari taldeek ondorengo haur ikastolak eta nagusien euskara ikasaldiak ekarri dituzte.

Oraindik orain gogoan dugu Larreko zenaren omenez Auritzen tudelatar bati entzun ahal izan geniona. Harako omenaldia Auritzen eratna zenez gero, auriztar eta ingurukook ziren nagusi bazkal orduan. Bertan zen Nafarroako Diputazioako ordezkaria ere, eta Orreaga balladakoei amaika eskari egin zioten, noizki behingo egoera hartaz baliatuz.

Halakoren batetan jalki zen tudelar bat, eta Erribera aldeko doinu aparta batez, Tudela ingurua ere Nafarroa aldean zuten, ezin zitekeela Nafarroan barrena Erribera

eskualdea ahantz, eta Diputazioak ipar aldeko lurralde menditsutan euskararen alde hainbat lan egin duen bezala, bidezko lizatekeela Ebro ibarretako launetan beste hainbeste egitea ere.



Gure txaloak, orduan, hango tudelarrari. Gure txaloak orain, berriz, herritar guztiei. Betor ba orain "Olentzaroa" oihitura zaharren oroigarri eta beste zenbait asmo bikainen suspergarri.

HANDIK ETA HEMENDIK

Hilaren 8an, jai zela eta, Ipar aldean ginen ostiral arratsaldean. Ez gintuen arrazoi zehatzek eraman. Adiskide batek zereginen bat zuten Baionan, eta hartaz baliatuz joan etorri bat egin genduen.

Espainol jendea erruz, euskaldunak ere anitz. Giputz hizketa non nahi, eta ezagunik bat baino gehiago. Izan ere, makinatxo bat arrazoiengandik, ezin aukerakoagoak era honetako egun hauk (hemen jai eta han ez) Ipar Euskal Herrian barrena abiatzeko.

Baionan egon ginen orduterdian, han —hala beharrez— bizi den zenbait adiskide agurtu ahal izan genduen. Hango berriak jakin, hemengoak adiarazi. Nahaste borrate, han hemen bezain, nonbait... nahiz eta, behar bada, familiak, sorterriak, lanbideak eta bestek eragin ditzaketan loturak hautsi edota erdi hautsiz gero, ipar aldean dauden hegotarren jokera, ikusmoldeak, iritzia, "tasunak" eta "ismoak" agiriago eta segurua azaldu, askatasun baten ondorio, edota tensio baten lasaitasun.

"Hemendik" argiago ikusten dituk gauzak —esaten zidan neska gazte batek (hika ere berea duzu, ez neuk orain asmatua). Zer naizen eta zer izan behar dudan garbiago ikusten diat hona etorri behar izan dudantetik. Zoritxarrez, hego aldeko egoera nahasi honetan, amaika gaztek, eta ez hain gaztek, ezin dezake hainbeste esan.

Giro nahasia dugu gaur nagusi. Edozein hauzi medio dela —ikastolak, hitzaldiak, kazetak, idazlegoa—, denok aurkitzen bide dugu arrazoirik franko harako hauzi berberaz nork bere iritzia sendotzeko eta indartzeko. Batek daki zer marabilaren gatik, hauzi oil eta mugatu batek, kolore guztitako sokatarako balioko balu bezala.

Nonbait, elkarrizketa falta zaigu eta itsukeria, bestalde, sobera. Edozein hauzi —hausnarketa eta zer pentsatu sortu beharrean— geure "egia"ren frogagarri erabili ohi dugu. Ez ari gara ba egiaren bila, aurrez hautatua dugu "egia" baten frogak bilatu eta norberaganatu gurarik baizik.

KAZETALARI BAT

Baionan bertan, eta ESLAIR-PYRENEES delako egunkariaren bulegoan, Donibane Garazin eratzeko zen jaialdi bat adiarazten zuten txartel bat ikusi nuen. Kristalaren zehar notatxoak hartu ondoren, hartako txartel bat lortu nahiz edo, bulegoan barrena artu nintzen.

Kazetalarik batek ziharduen telefonoz, hitzez hitz, berriren bat ematen. Ez dut, hala ere, hartaz segurantzarik, ez bait nion tutik ere ulertzen, baina, kronika bat irakurtzen ari zela zirudien.

Amaitu bezain laster, frantximantez ekin nion nik ere, nola hala, frantsesez ez nekiela aurrenik esanez, eta harako txartel bat nahi nuela adiaraziz, eta... eta... ezer gehiago ez, ez bait genion elkarri ulertzen. Halakoren batetan, argi izpiñoren bat kaskahezurrean barrena piztuko baillitzaian, esan nion esan:

—Eta... euskaraz, bai?
—BAAAI!! —harro eta irribarraz erantzun.
—Zer arraio! Zertan gabilza ba!

Nor ote zen eta galdetu nion, ez bait nengoen ez jakiteko, hura irrika! Nor ote zen ba, eta GEHEXAN LANTZIRI Ene amatxo! Nor eta, Gehexan! Euskal Herrian gaur dugu kazetalarik onenetarikoa eta dudarik gabe jorieta eta zailduena. Elkar besarkatu ginen, betidaniko adiskide baginen bezalaxe.

Baionako HERRIA eskal astekarian astero idatzi ohi du Gehexanek bere "Euskal Herrian Gaindi" deritzan sail irakurgarria. Horrez gainera, sarri asko eskaini ohi dizkigu artikulu luza guztiz apartak, gai batez zein bestez.

HERRIAN ezezik, bai eta aipatu dugun erdal egunkari ere. Bi egunetik behin, astearte, ostegun eta larunbatean, artikulu luze samarrak idatzi ohi ditu euskaraz. Lehen bi egunetan, eskal editorialetan argitaratzen diren liburuen berri emanez, eta larunbatean, berriz, beste edozein gairi buruz, artikulu mamitsu batez. Horrez gainera, frantsesez ere idazten omen du zenbait artikulu.

Hain zuzen, Gehexanek berak esan zidanez, Baionan argitaratzen den ECLAIR PYRENNES delako egunkari hau gero eta gehiago murgiltzen ari omen da euskal gaietan, eta artikulu eta sail gehiago eskainiko omen du euskaras denbora guti barru.

ZAZPIRIBAI

Eta, arian arian, goazen Donibane Garaziko jaialdia aipatzera, beratu dela eta ez dela, ezagut ahal izan bait genduen geure Gehexan.

Hilaren 16an, eratzeko zen Nafarroa Behereko Donibane Garazin Programa, berriz, erabat joria, irakurleak ikus beza: Lurdex Iriondo, Peio Ospital, Pantxo Carrere, Patxika eta Ugutz, Manex Pagola, Xabier Lete, Benito Lertxundi eta I. Urtizbera. Nork eskain dezake gehiago? Han ziren behintzat ipar aldeko ontzook, eta hegotarrik batere ez eskaik.

Hala ere, ez zeritzan Gehexan Lantzirik jaialdi honi hego aldean eratu ohi diren gonbaragarri. Izan ere —esan zidanez—, bezperan Azeptian egona zen bera (Urola Ibarreko Biltzarrak zirela eta, hemengo beste zenbaiten artean, Peio, Pantxo eta M. Pagola kantariak hartu zuten parte), eta guztiz liluraturik mintzatu zitzaidan Azeptian ikusi zuen giro hunkigarri hartaz Hura gazteria hura! esaten zidan. Noiz hemen halakorik? Noizbait bai ote? Ez dugu horretan duda-mudarik, ez eta gutiagorik ere, Gehexan Lantziri hainakoak sortzen diren artean behinik behin.

Bere etxera eraman ninduen gero, bertan bait zuten harako jaialdiko zenbait txartel. Hantxe ezagutu genituen bere emaztea eta Amayur izeneko haurtxoa. Berriketa guti erabili genduen, ordurako ilundua bait zen eta oraindik Bizkaiko mugaraino itzuli behar genduen eta.

Dena den, hartako txartel bat eskura ahal izan genduen, inprimategian "bapo" egiten ez badigute —hainbatetan bezala—, irakurleak sail honetan ikus dezakeena. Zaldi zuriak zer esan nahi duen ez dakit. Duela bizpahiru aste aipatzen genduen Gaztibelzaren zaldia, te? euskara alegia.



Izenari burub, beste horrenbeste galda dezake irakurleak, zer esan gura ote duen ZAZPIRIBAI delako horrek, alegia. Nik neuk hori berori galdetu nion Gehexani, eta bai harek erantzun halako irribarra xarmanta batez: ZAZPIRIBAI anitz gauza izan daiteke. Bizpahiru bai, bederen: ZAZPI-RI BAI! ZAZPI-(h) IRI-BAI! eta ZAZPI-R-(h) IBAI. Zentzurik duenak uler dezala.

Agur honenbestez. Datorren astean hitzeginen dugu Gehexanek aipatu zigun Ipar Euskal Herriko egutegiaren Zeren, guk besterik uste izan arren, ez bait da Arantzazukoa Euskal Herriko egutegi bakarra. Bejon dagigula.

Gabon igaro, irakurle. Gogora itzazu, egun hautan gutienik, Txomin Agirrerren hitz haiek: Errukarria Gabon gabeen bere etxetik urrutu dagoan eukal semea! Kupida zuzute gau onetan bere maitientzat nai aña janari idoro ez-tuan euskaldun etxekoandrea.

Gaur da Olentzero ta Bihar Eguberri...

Errekan dago igela Preskoa dauka gibela. Orain hemendik bagoaz eta Gabon Jainkoak diela.

Gure txokotik Langileria eta beste problema batzuren inguruan

BERRIZ ERE KONBENIOAK

Azken astean SEAT enpresan lortutakoak aipatzen genituen. Halaz ere konbenioen arazoak azterketa sakonagorik merezi duela uste dugu. Izan ere, kapitalismoak bere autarkiatik irtetzen joan dan era berean, langilegoari ere erantzun berriak eman nahi izan dizkio. Jurnal eta beste gainontzeko arazoetako konbenioen bidez bai lantegiari, bai langileen eroste ahalmenari eragin biziagoa ezarri dio.

Konbenioen historia, ordea, ezagutzen duzue: langileek kontzientzia zorrotzagoa erakutsi izan dutenean Norma de Obligado Cumplimiento deritzuten legeak bete baino ez ditu egin langileak. Zergatik? Konbenioak frakaso hutsa besterik izan ez direlako.

Azken aldi honetan, badirudi lantegi nagusienetan diru aldetik jornalak gehiago igotzeko prest daduzkagula, baina bi urtetarako izenpetuaz. Egunetik egunera ugazaben artean alkartasun estuagoa nabari da. Langileek gaurregun eskuartearen daduzkaten eskabide nagusienak:

- Asteroko 40 orduko lan aldia.
- 30 egunetako oporraldi edo bakantzak.
- Konbenioa urte baterako bakarrik izenpetzea.
- Gaiso aldi, akzidente eta abar jornal osoa kobratu ahal izatea.
- Elkartze eta lanari uzteko eskubideak.
- Maila guztietarako altxaera berdina lortzea, hileko hiru mila pezeta inguruko altxaera, alegia.
- Gauzak horrela daudelarik, irakurleak bere konklusioak aterata bitza.

C.E.E. ETA GU

Kezka nabari da, eta ez nolanhikoa Merkatu Batuekiko zertan bukatuko den. Oraingoan, politiko harremanak alde batera utzirik, ekonomia-erakunde estuagozkoan dira. Optimismo apur bat ere nabari da zenbaiten artean...

Alderdi hau ongi aztertzea merezi duela derizkiogu. Langileriarekiko ere aztertzeko izango da. Eta delako «regionalizazioa» noiz, nondik eta zertarako sortuko ote da?

Agian, behin eta berriro lehenera gatoz. Guk geuretzat egiten ez dugunik bestek ez digute konponduko.

ISRAEL NAGUSI

Libano, Siria, Jordania, Egipto, Palestinoek ez dute Israel menperatu, ezta O.N.U.ren erabakiak berak ere. Palestindarren eskubideak, arabetarren eskubideak ozenki aldarrikatzen dituzte. Baina Israelek egurra dantzaten duen momentuan, arabetarrek estu eta larri ikusi ohi ditugu. Palestinoen burruka dela eta, bakoitzak bere lurraldean «ordena» gorde dezan ahalegintzen da. Binbitartean, bai teknika sailan, bai harmen indarrean, nagusi agertzen zaigu.

UNESCO DROGAREN AURKA

Drogaren arazoak kezkatuak gaizka, eta kezkatuak baita erakunde internazionalak ere. Drogaren aurkako kanpainak ugaltzen ari zaizkigu egunetik egunera. Baina kanpaina egiteko era hobekiago gertuta eta preparatu behar dela diote.

Parisen, estatutakoak bilduak ditugu drogaren aurka zenbait erabaki hartzeko. Aurrez erantzundako zenbait galdera hartuko dute lanaren eta erabakiaren oinarritzat.

Drogaren aurka burrukatzeak, drogazalekeria sortarazten duen giroaren aurka burrukatzea ere eskatuko du. Gaurregun konsumismoan murgilduak bizi garelarik, pertsonaren nortasunaren aurka daduzkagun erakundeak gogoan harturik, kirol-droga eta gainontzekoak hain arerra ona dutelarik, nolaz drogaren aurka burrukatu? Drogaren aurka burrukatzeko geure artean dagoen «ocio» eta «opio» desegin beharko genituzke.

DENETIK ZERBAIT —Dirudienez, Allenderi URSSen laguntzarik agindu diote bai meatz-gintzarako, nekazaritzarako, arrantza eta industriagintzarako ere. Legepean iraultza lortzeko lanik asko eman dio Allenderi. Laguntza honi eskerrak indarberrituko ote zaigu? Poztuko ginake, benetan.

—Argentinan Peronek ez du auteskundeetara aurkezterik izango. Baina bere jarraitzaileek «justicia social» deritzan programa proposatzen dute.

—Irlandaren Hegoaldean herriak ez du Eliza Katolikoaren egoera berezia ontzat ematen. Gehienek, ehuneko larogeik hori aitortu du azken auteskunedetan.

—Venezuelan bada istilurik estudiante eta ertzainen artean. Ikasleek politiko espetxeratuaren tratuegatik beren haserre erakutsi dute.

MIKEL UGALDE

Lehenengo batean, gai honetaz ihardunez, zenbait ohar egiten nuen sindikato konformistetz, zenbait pundu soil-soilik ukituz, ezen, ukitzekotan, milaka pundu uki bait litezke. Baina ukitutako pundu horiek konprenitzea derrigorrezkoa da, erresuma batzuek, mugimendu batzua direla medio, daramaten joera inperialista konprenituko bada.


Mugimendu horien joera, ikusten genuenez, huelgaren mitifikatzean datza eta ikusten genuen, nola erresuma bateko (erresuma kolonizatu edo) langileria-erakundearen beste erresuma bateko langileria-erakundearen joerari menpeko zegoen, gehienetan erabat kaltegarria izan zitekean. Hau, jakina, bazterretan internazionalismoa predikatzen duten intelektualek ez dute konprenitzen. Ez da posible, diote, erresuma desberdinetako langilerien arteko jazargo edo kontrazio antagoinik izatea. Historian zehar gertaturiko zenbait kasu besterik erakutsi arren, ez da amaitzen tesisa hori, proletargoaren borroka berez internazionala delako.

Zer darakuskigu honek? Nere ustez, marxistentzat, nahiz errusuzale, txinozale, nahiz troskista, zeharo gorritu dira bere joera aurrera eraman ahal izateko kondizionamenduak. Hau ez da berri, ez dugu asmatu ezer. Stalinen denboran zerbait halakoxe gertatu zen eta denok badakikegu zer gertatu zen. Txinan ere, gauzak zeharo aldatu dira, bazterretako txinozaleek justifikatu nahi izan arren.

Kondizionamendu horiek, askotan, teoria maillan sartzen dira eta, zaintzeko diren interesen arabera, ideologia tenporalak agertzen dira. Gaur ere horixe gertatzen da marxisten artean. Baina lehenengo lepotikakoa izan den burua, eta lehenengo lepoa, here ustez, stalinismo bera da. Ezen, nere ustez, bestek uste berekoak ez izan arren, munduan gertatzen ari denak erakusten baitigu ezen stalinismoa, nahiz eta bere monumentu guztiak lurreratuak izan, tinko jarraitzen dela eta hezurretaraino sartuta dutela antzek.

Gogoan dadukat oraindik Garaudy jaunak Euskalerrian emandako hitzaldietan esanak. Garaudy, Frantziako P.C.-ko kide izana, eta, badakikegunez, P.C.-tik aldentua, expulsatua, hereak eta asto beltzarenak esan ditu stalinismoaz. Zen-

(eta II)



«Hau, jakina, bazterretan internazionalismoa predikatzen duten intelektualek ez dute konprenitzen».

bait jenderentzat, Garaudy da stalinismoaren kontrako mugimenduen burua. Baina bihur gaitzen momentu batez Garaudyk Euskalerrian emandako hitzaldietan esanetara eta ikus. «Stalinismoaren kritika izigarri bat egin du», esango du zenbaitetik. Eta hau egia bost zubitara dago. Kasualitatez, omen, Garaudyk, stalinismoaren kritika egitean, stalinismoaren ezaugarri nabarmena baztertu zuen. Nazionalismoa, alegia. Klara, ez dugu Garaudy jauna halako esanplu zorioneko, ezen Garaudy jauna frantsesa da. Baina tira, batzua frantses, bestek...

Zer da stalinismoa, erresuma batzuren inperialismoa estaltzeko estakuru bat ez bada?

Stalinismoa, ideologia tenporala, lehen esan dugunez, kapitalista erresuma eta sozialista gobernuo batzuetako langileen interes hurbillak, proletargo aiurri duten formazio estatalen interes hurbillei menperatu behar zazkiela aldarrikatzen du. Hau da, nazio horietako langileen interes hurbillak, U.R.S.S. eta China-ren interes inperialistei menperatzea, besterik ez. Txinoek, gainera, poliki ikasi dutela dirudi, stalinismoari ezinago hobeki antzeman bait diote. Alferrik lizateke esanplurik aipatzea. Hau, nazio arazoei begira, inpor-

tantea da nere ustez. Inperialismoa nunnahi ikus dezakegu. Ideologia maillan inperialismoaren zantzuak ikus ditzakegu bazterretan. Eta horregatik salatu beharra dago. Gogoan dadukat orain «Triunfo» espainiar astekarian, «Especial Los Españoles» delako alean, Jordi Sole Turra espainiar ideologoak esana: «lo catalán se va identificando con posiciones de clase pequeño-burguesas y burguesas, mientras que lo castellano se va identificando con posiciones de clase proletarias».

Euskalerrian beste horrenbeste esango zukean txotxolo horrek? Bilbon egon omen zen duela zenbait urte eta hanka egin behar izan zuen bere teoria erreakzionarioekin. Baina hortik jarraitzen da, inperialismoaren onerako.

Langileria, baita Euskalerriko ere, erne egon behar du atake ideologiko hauen kontra; bide gurtze batean dagoelarik, hil edo biziko egoera dela-ta, erne egon behar du etxeok eta etxeok ez direnak berezten. Inperialismo dagoen lekuan, salatu eta aurrera. Horrela jokatzeko ez badu, eroriko da beti mugimendu inperialisten erreformismo eta oportunismoan.

G. K.

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BEBBIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

ETXEKO-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketara makinaz egiten ba'ezu

ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboia bakarra
Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

JABON LAGARTO!


UROLA

Arranbarrillan okelak egiteko

Restaurante berezia



Arzalluz
Arregi'tar
Juan



Urrutizkiña: 41 28 49

Fermin Calbeton, 20

DONOSTIA

MENDI

OGITEGI TA PASTELDEGIA

Etxe-nagusia: San Juan, 13

Denda-ordeak: Mirakruz, 13

Av. Felipe IV, 3

Urrutizkiña: 41 27 79

Urrutizkiña: 41 37 79

Urrutizkiña: 42 35 23-Ext. 116

— DONOSTIA —

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

OLENTZARO



Begi-gorri ba dator Aiton Olentzaro;
urteak egun ainbat begi ta bat geigo;
gurdia aifeko sabel, aurpegi dana ago...
Nondik nora sortu zan jakin bage nago.
Onengandik egunak artua du izena
leengoek «Subilaro» esan ziotena.

«Subil» naiz «bazar-egun» naiz «enbor», bat [dena]

etxe bakoitzetara bina dakartena.
«Olentzaro» zer daiten ez dakit nik; baiña
—beste zenbait erritan Zarpantzar zikiña,
Kokoetan «Osaba» sabelzai lizuna—
gaur «onen aro» daka, edonork dakina.
Kristauak egiten du egun artan baru,
nonbait jainko txiki ark bete dezan larru.
Tximinitik begira —sinets nai badugu—
baru nai ez dun aurra itaiez keifia du.
Gaurgero mutikoak eiten diote irri,
erabilliz errian txori-mozorro orri.
Gauerdia baiño leen du sorgin-afari;
mozkor au bizkarrean, diote kantari:

«Olentzaro begi-gorri;
non atzia duk arrai ori?
—Bart arratseko amaiketan
Anbuluteko arkaitzetan.
Olentzaro jaun ordia,
buruz ederki jantzia:
edan batean ustu diguk
sei arroako zagia.
Olentzaro pipa-artzaille:
pipa au nork bete lezake?
—Lizar aundi baten ostoz

nonbait-or bete liteke.
Ire mozkorrek iraunen
illabetean gutxien;
buru goibela argitzeko
pipa maiz aal-duk erretzen».

Ego-aizeak zerbait urtu digu elur;
menditik ekarriko gaur bi baztar-egur,
aiekin urteari egiteko agur:
Urte Berri artio bai baitute mutur.
Au Jainkoari eta au Andre Mariari;
erdikoa atariko eskale otzari.
Irurak sukaldea digute onetsi,
Olentzarok ez dezan laratzik ebatsi.
Erdi-erdian dugu euskal-sukaldea
ke-bide txaranbilla iduriz dorrea;
bi baztar-egur etxea...
gure aitonenandik degun aldarea.
Sukaldea jantzirik jakiz ta egurrez,
illuntze ederra bekar Jaungoikoak onez.
Mutillek etxez-etxe kantan asi bitez,
zuurrei birau, zabalei eskerrak egiñez.
Ele-eder, bertsoetan errian nagusi:
aurten aukera dute denen buruzagi.
Kanta zaarren artean naasiz zenbait berri,
bera asmatzen dio etxe bakoitzari.
Aurren-aurrena doaz «Zimur» en etxera,
deus ez emanik ere loak astintzera.
Amandreak atea ez idikitzera,
botako dute igazko biraua ber-bera.

ORIXE
(«Euskaldunak» Poematik)

Olentzero Nafarroako Herrietan

Duela zenbait urte arte Lesaka zen Nafarroan Olentzeroa egi-
ten zuen herri bakarra.

Beste herri askotan ohitura berezi batzuk laguntzen zioten
Olentzerori, honela asko aldaturik. Etxarri-Aranazen, Leitzen, Liza-
rraga-Ergoiena, Arbizu eta beste zenbait herritan egin ohi da be-
tidanik ere.

Hasi zen Irunean (duela 15 bat urte); geroztik urtero eta
Ituringo Zarpazarra lagun duela egiten da Olentzero. Gero Tafallan
eta Lizarran eta ihaz herri bakoitzetik arduradunen batek osaturik
eta guztietan guti gora behera berdin antola zedin, «koordinado-
ra» edo talde bateragile bat sortu zen.

Beran (ez bait zen urte asko galdu zela), Mezkirizen, Alsasun
eta Muskarian (Tudelan) egin ginuen, bai eta hauen ondoko herri
guztietan berpizteko bidea ireki ere.

Aurten aterako duten herriak, Elizondo, Lekunberri, Olatzgoitia,
Urdiain, Irurtzun, Uarte-Arakil, Auritz eta Garralda izanen dira.

Ihaz ateratako xartelez gainera eta irudi berdina dutela, itsas-
ten diren plastikozko horietakoak atera dira eta ongi zabaldu ere.

Nafarroako Olentzero-Bateragileak

ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:

ELGOIBAR
M. Gorostiza

EIBAR
Angera
Markina
Iruñe
Eguren
Giezoila
Berale
Alday
Aranburu
Estaniko, 11
Izoel
Simon
Amena
Uztar
Uztar
Sugio XX

Ez dezagun

«olentzero» tu Olentzaro

Eguberri. Ohitura zaharrak in-
dartsuen azaltzen zaizkigun aldi-
arora. Antxiñatasunaren oihartzu-
na dakarkigun garaia. Negua beltz
eta eguna motz, gogoak alaitasuna
eskaten digu. Eta afari onak eta
kantak, etxeratzeak eta gorain-
tziak, atozte esateak eta zorion es-
kaintzeak, giroa alaitzen du, na-
hizta triste dagoana tristeago sen-
tituko danarren.

Olentzaro dugu ohitura zahar
hoetarik bat, beste asko bezela,
indartuz ari zaizkigunetarik bat.
Eta gure herrietako kaleetan ze-
har, oleskari gisa agertuko zaigu
berri ere, Eguberriko oles egi-
ñez. Hiltzen zoan ohitura hau, he-
rriz-herri edatzen asi zaigu. Olen-
tzaro, Olentzaro, Suillaro edota
Olentzero, bakoitzak irauerazi be-
za bere herriko gisan. Baiñan be-
rriz jartzen ari diren herrietan,
behar lukee zerbait aztertu eta ain-
bat jatorrikoien atondu.

Barandiaran jaunak diñoskunez,
izena du ohitura honek aipaga-
rriena, bai eta bere inguru iraun
duten sinieskeriek ere. «Olentzaro»
izan bide da zahar-kutsukoena eta
aldi-aro bat adierazi nahi omen
du. Neronek ere egin nuen hontaz
lantxo bat eta uste beroietako naiz.
Edonola ere, erabiltzen dugun gi-
za-antz hordiki hori baiño zerbait
sakonago adierazten digu.

Erdaldun asko dugu gure artean
eta belarriek erdal-kutsaturik ditu-
gu. Olentzaro-k ez dio ezer esaten
askori. Olentzaro-k bai ordea. «El
Olentzaro» «el pregonero» eta «el
patatero» antzekoak dituzte. Larriñ
izena, La Reina egin zaigu. Ola
berri, «La ola» eta Larratza «La
raza» Bakoitzak bere erara gauzak
ikustea, entzutea nahiz esatea, be-
re esku du. Ez dago hori ukatze-
rik inori. Beraz, geuk zaindu be-
har ditugu geureak eta besteri adie-
razi. Erdaldunek beren lojikakin
jokatzen dute eta lojika hori ez
da gureakin bat izaten gehienetan,
ez eta senide ere. Lehengo batean,
Bilbora nindoan, Durangoko auto-
busean: astiz urri nintzalarik, le-
henen nun gelditzen zan jakin na-
hi ta alboan zoan erdaldun itxu-
rako emakume bati galdetu nion.
«En La(s) Riada(s)» erantzun zi-
dan. Ahazabal gelditu ordez, eske-
rrak eman nizkion, baita berehala
nerekiko: Arriagan izango duk! Eta
alaxe izan zan. Baietz jaunak, las-
ter, Aretxabaleta ere «La chavali-
ta» egingo digute.

Gure urietan, «el olentzero» eta
«e olentzero» entzungo ditugu Egu-
berri hauetan. Geroxeago izango
da «elechero». Eta laster agertuko

zaigu norbait, «helechero» idatzi
behar dala esaten. «Helecho»tik
datorrela esango du. «Helechero»a,
mendi-gizona zala eta gure men-
dian iratze asko izaten dala ere
probatuko dizkigu. Eta askok si-
nietsiko du eta bihotz-bihotzez «h»-
kin idatziko du. Berehala sortuko
da beste norbait eta ezetz esango
du, milla bider ezetz! Olentzero
mendi-gizona zala eta ahuntzak ere
bauekazala eta hoen esnea urira
ekartzen zuala. Ta bidezkoena «el
lechero» idaztea dala. Eta euskal-
erako beste gerratxo bat sortuko
da. Uri batzuetan, «h» zaleak,
Olentzaro iratzea besartean duela-
rik aterako dute. Beste uri batzu-
etan, «h» ikusiz aitaren egin eta
xistua lurrera botatzen dutenek,
Olentzaro ahuntz eder bat lagun
duelarik erabiliko dute. Beharbada,
beste irugarren jakitun bat ere
sortuko da. Eta erderaz esango du:
«Un profundo examen de los tex-
tos arcaicos y el detenido estudio
de los detalles que rodean a este
simbolismo ancestral, nos llevan a
la siguiente conclusión: Que en
un principio debió de llamarse «El
auntzero» que más tarde degeneró
en «Olentzero» y hoy día se ha
convertido en «El lechero». Pero
todo ello en derredor de la figura
de la cabra que sin duda está
emparentada con el mítico chivo
de los aquelarres».

Astekari hontan, jokera guztiak
agertu nahiko dituzte. Eta guztien
ostikadak hartu beharko. Ahuntz
zaleek eango dute: «Zeruko Argia?»
bai zera! ifernuko. Deabruari
ateak irekitzen ari da eta iratze
orrek guztiok kiskalduko gaitue». Iratzedunek berri: «Zeruko Argia?»
Baah! a zer petrala! Gure erriak
nezario zuen eta iratzearekin
egin behar genuen erreboluzioa
postergatu, besterik ez horrek». Bai-
ñan zentzudun euskaldunek sako-
nago eta zuhurrago pentsatuko du-
te. Eta norbaitek berri, nik behi-
ñola idatzi nuen «Tentelerrri» ale-
gia idatziko du, baiñan berri ere,
astekari hontan argitaratzeko bel-
dur izango dira. (Lehen egoizea-
gatik, gero erriko lañoagatik).

Bitartean, Joanes-en etxe zaha-
rra eroriko da eta atalburuko har-
ri nagusia bide-gurutzean jausiko.
Eta arri hontantxe, euskera ikas-
tun suomitar jakintsu batek, ho-
nelaxe idatziko du:

Gizarte bat izan baitzan
ederra bezin tentela
txoro-gudan ebillela
lokatzetan amildu zan.

KAPANAGA

zuretzat etxea ZARAUTZEN

sarrera
50.000 pezetan

ordainketarako errettasun osoz

- San Pelayo auzoan
- 560.000 pezetan etxe-bizitza
- Erabat bukatuak ditugu

Beaz duzun informazio edo argitasuna:

- Asteartean, arratsaldeko 4-6,30 an
- Ostegun goizean 10-13 an
- Eta Donostiako ofizinetan edozein momentutan



CSG CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkiña 426906-429842
DONOSTIAN

Publicidad Autorizada n.º 76

LIBURUAK

PIO BAROJA

Pio Baroja jaio zela ere ehun urte bete dira. Hori dela eta argitaratu berria du ETORek liburu eder bat: Hitzaurreko hitz hauek irakurtzen ditugu azalean:

«Altzateko Itzean leihoak hertsirik daude. Etxeatariko untz-gorriak, bere gorritasun herdoildua erakutsiz, urre zahartua dirudi».


«Aurten da ehun urte etxe hartako "gizon gaiztoa" jaio zela. Pio Baroja Nessi 1872 abenduaren 28an jaio baitzen: Euskaldun bakarti, xamur eta problematiko haren oroitzeak biziki hunkitzen gaitu, eta berak hainbestetan aipaturiko Heesaera burura datorrigu: «Nehor ez rakiho greziar filosofo zaharraren da erreka berean bi aldiz bustitzen denaren baitan bezalaxe».

«Halaz ere, aldakortasun eta iheskeria izugarri horren erdian, gure herriaren eta bere historiaren arrazoak, gertakizun eta lerro nagusien arrastoak bilatzen eta aztertzen saiatzerá beharturik gaude».

«Horrengatik argitara da liburuak hau. Bertan parte hartu duten idazle euskaldunek Pio Barojaren azterketa maitakor eta kritikoa bat itxuratu nahi izan dute; behingoz, eta ondoren sakonagoak ekar litzakeen lehen saio bezala, Baroja etxetik bertatik aipatzen eta ikusten leihatuz».

Elkar-lanean osaturikako liburuak duzu: Julio Caro Baroja, Gotzon Goenaga, Harzabal, Anjel Lertxundi, Xabier Lete eta Juan San Martin dituzu egile.

Borobil bukatu du ETORek 1972-garrengo urtea. Pio Barojarekin burutu hogeigarren liburuak: Donostia-



ko AURRERAN ospatu du bere adiskideekin bixigarri eta guzti.

Ez dugu liburuaren kritikarik egingen. Baina irakurtzea eta aztertzea merezi duen liburuak du.

Gai hauek hornitzen dute liburuak: Hitzaurrean, Baroja eta Euskal Herria (Julio Caro Baroja), Pio Baroja eta Hemeretzigarren mendea (Xabier Lete), Zikiro bidea (Poema) (Harzabal), «Jaun de Alzate»-ren hitzaurrea (Gotzon Goenaga), Baroja: aita-emeak (Juan San Martin), Baroja: sorginkeria eta objektibitatea (Anjel Lertxundi), Pio Barojaren bizi-kondaira laburra eta Pio Barojak idatzirikako lan nagusien zerrenda.

PIO BAROJA —ELKAR-LANEAN— ETOR.

Irastortza

Zenbait burutapen egungo egoera bati buruz

Euskal Herriko bazter batzuetan ikastolaren egoera gero eta larriago jartzen ari zaiku. Ez noa nork nolako errua duen esatera, arazoak autokritika baten premia azpimarkatzerá baino, hala andereño eta herri bezala, nola guraso eta junta bezala.

Orain planteaturiko arazoetako bat Eliza-Ikastola bikoteak dituen harremanetakoak dugu. Deustuko gutunak dioskunez, ikastolan zabalzen den heziketak kontuan hartu behar ditu Elizaren baloreak...

Heziketa hau, etika, erlijio eta giza aldetik gizon osoa sor dadin saiatzen denean, Eliza-Ikastola elkartasun hori begi zorrotzez eztabaidatzen saiatzen denean —giza ta herrigintzaren konpromisoa oinarritzat harturik— onartuko dugu bakarrik. Hortakoz, ezin dezakegu gutunaren aurreiritzia epaitu bainan bai zer esan nahi duen «Elizaren baloreak» aipatzean. Anitzetan esan ohi ditugun baloreak baldin badira —elkar hizketa, sozial errealtatearekiko konpromisoa ta sinismenaren pertsonalizazioa (Ikus Anaitasuna, «Erligioa eta heziketa», N.º 244)— nehorik ezin ukatuko du heziketa horren garrantzia. «Justizia-heziketa dimentsio berri batez egin beharko da, kritika-ahal-

mena ta herri-kontzientzia bizkor-tu ditzan, egiturak ankar gora jaurtikitzearren». Eta hau azken Sinduan esana da.

Bainan nahi dena, eta honek esateak min dagit, heziketa gaurko gizarteari hertsiki zaizkion molde batzuek ematea baldin bada, gogora dezagun Eliza eta Kristoren benetako aurpegia ahanztzen ari gara.

Beste puntu batean heziketa-problema guraso eta andereñoei dagokiela esaten da, eta hauk gehientasunari egoki iruditzen zaionean etor daitezkeela bakarrik bileratara. Zertan gagoz? Hori delata, gehientasunari «egoki iruditzen zaionean» bakarrik al dute andereñoek heziketarekin zer-ikusirik? Eta Kristoren benetako aurpegia ahanztzen ari gara.

Andereñoak ez dira morroi. Ikastolan dagoz edo egon beharko luteke konprometatutik, herri osoa bezala. Hain atea hersteian, traba bat ifintzen diegu konpromiso hori egoki betetzeko. Gehiago ere esanen nuke: ez bakarrik andereñoen, baita herri osoaren erreprezentazioen bat egonen beharko luke, denoi dagokizun arazo bat denez.

Ikastolak pedagogiaz aparte ere beste zenbait prolematika baldin badu, eta andereñoen konpromisoa behar diote baimena gehientasunari? Ez ote da izanen hitzetan onartzen badugu, zergatik eskatu geratzen gara, eta ez zaikula atsegio esaldi prefabrikatu asko egitaratu? Edo eta oraindik nehorik ez al daki zein den ikastolak aurrera eraman behar duen lana eta heziketa? Egia ote «euskeraz» hermituriko heziketa huts eta ihartu bat zabaltzen ari gara?

Ez dezagula demokrazi eta askatasunik eska besteei ukatzen diogun bitartean. Hala interes izkutu baturen eraginez jokatzan al dugu? Eta hala ez bada, zerk beldurtzen gaitu? Ez ote da hobe denok elkartzea elkarren aurka hasi baino lehen? Honek ez du adierazi nahi besteen jarrera hartzea, hura errespetatu ta elkar-hizketa bat sortzea baino, ikastolak aurrera jarrai dezan. «Nahasketak ez dira legeen bidez garbitzen; elkar hizketaren bidez baizik».

Eta ez ahantz: erdian dabilena haurra da guztietan!

XABIER PORTU

BELEN 'GO BIDEAN

(Artzaia ta artzaitxoak)


Aita! dio artzaitxoak.
—Zer nai duk maite?
—Gaur egun aundia dela esango nuke.
—Zer dela ta ordeá, nere semetxo? zer dela ta, esaidak ene kutuntxo?
—Ez al-duzu entzuten artzai abestiak?
ujuju! batzuk eta ijiji! bestiak?
—Ixo!... ixo!... bai, bai, egi-egia duk,
txistu, oju, irrintzi! nortzuk ote dituk?
Laisterka bizi batez ziren urreratu, artzai buru zuri bi Anton eta Peru.

—Ain laisterka bizian, ta pozez berterik,
nondik-nora zoazte mendi-mendirik?
Ta erantzun zuten, pozez eta alai,
«aspalditxoan gaude Aurtxo baten zai».
—Aingeru batek dio or goiko mendian,
gabaren erdian.
—Gaurko gaberdian? Non? Non? Belenen?
Goazen azkar, semetxo, goazen lenbailen.
—Aaufi!! Bai aitaxo, goazen Belenera,
jaioko den Aurtxoai musu ematera.

—Ar dezagun, seme, bildots bana biok,
Aurtxoai eskeintzeko samur-samurrok.
Iragarri bezela, gabeko orduan, gure Gaizkatzaillea jaio zen munduan.
Orra Jesus Aurtxoá, egiñik gizon guri ekartzearen Pake ta Zorion.
Aurtxo jaioberria Amaren ondoan, alai ta pozez dago seaskatxoan.
Aintza ta aintza zeruetan Jaunari, ta Pakea lurrean gizadi denari.

Andonegi-tar. Ziriako

diskoak



NORK KUKURRUKUiiiiiii

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek


sukaldian

F. Martínez - en SEMEAK

ARDOAK ETA EDARI BIZIAK

Etxe Nagusia: Urbietta, 52	Urrutizkiña: 41 08 86
Denda Ordeak: Narrika, 29	Urrutizkiña: 41 07 43
Usandizaga, 19	Urrutizkiña: 41 79 68
Puerto, 24	Urrutizkiña: 41 79 68

— DONOSTIA —



GAMETXO TA ERRANDONEA

DONOSTIAN


Langela ta erakustegia:
Narrika, 27 eta Iñigo, 3
Urrut.: 12 29 82 - 41 77 97

IRUN

Gordairu - Erakustegi - Lantokiak
Bentas Auzoan
DONOSTI - Irun-go Karreteran,
Km. 16
Urrut.: 61 64 40 - Iru ari

OSTATUETARAKO ORNIDURA BEREZIAK

Sutan egositako apaindurak - Landuak - Mai - tresnen eraberritze ta zillarberritzeak - Lobainak perladundu.



eibar

ANDRES DONEA

Ez dago esan bearrik ondo baiño obeto igaro dirala San Andres jaiak; au eibartar guztiek dakite. Zorionik beroena eman bear zaio, programa egin zuanari, Taberna jauna eta Iruñeko Abestalde eka- rri zuanari, batez ere.

Eguraldi ona, eta eibartarrak alde guztietatik.
ASTELENA
Esaten dutenez, ez degu pelotari- rik garai onan, baiña bai pelota zaletasuna. Azkenengo igandeetan, Astelena, aur, gazte eta nagusiz bete-beteta aurkitu da: «Campeo- nato de Guipúzcoa de Aficionados. Distrito de Eibar».

Txapeldunak auek izan dira
GAZTETXOAK
Arrate - Bastida
GAZTEAK
Churruca - Mendicutte
ESKU-HUSKA
Azpitarte
Ba ote degu aziren bat tardean?

ZEZILI DONEA

«Cielito Habanera» entzute- ra- koan, biotz barrenetik pozak ur- tetzen digu.
Urtero bezela, gau erdian kalez- -kale zijoan Eibarko erestalde edo banda. Jacinto Zuloaga buru zuala, eta gau ederra zanez, jende asko- kok laguntzen zuan txalo berok sa- rituaz bide guzian.

Soiñu au entzutean, nor ez da Agustín Zuloagaz gogoratzen? Naiz «Cielito» izan errikoiena, bere bes- te eresi asko ere ezagunak dira.
Con gracia y salera Pasodoble
Al Eibar Club
Pamperito
Muy Chulon
Sandunguero
Fulmen
Cielito
Pipiola
Alma Gaucha
La Torrerica
Ana Mari
Bere anaia Jacinto, eres talde- aren zuzendariari esker, eldu zaiz- kigu.

BILLAR

Oso ezaguna da aspalditik billar zaletasuna gure errian.
Ciriaco Aguirre, Periko Kruzeta, Ito Unzueta ta Fermin Ciorraga jaunak ditugu, leengo izen ezagun batzuz.

Aste gutxi dirala Fermín Ciorra- gari omenaldi txiki bat egin zitzaion Kerizpean. Leenago ere, Casinon izana du omenaldi bat bere ize- nean ipinita. Juanito Zaitegi jauna irabazi zuan leenengo taldea eta Garcia jauna bigarrena.

Bai mereziak, Fermín, omenaldi biak!
Emendik bialtzen dizkizut zorion beropnak.

Kruzeta'tar Odile

legazpia

JAIALDIA

Erriko erestalde, ta abestalde, errikoiak (Udalburu Batzaren babe- sean; Erki-Aurrezki Kutxa lagun- tzaille zutela), beren zaindari Ze- zili donearen oorez, antolatatu zuten Abenduaren 3an eres- abes jai atse- gingarria «Eslesa» antzokian.

Leenengo atalean talde auek ge- nituen parte artu zutenak. Erri- eres batza, Gorrotxategitar Jose M.ª zuzendari. Erri-txistulari batza, Elortzatar Joxe Inaxio zuzendari. «La Salle» abes-mutillak, Orbetar Angel zuzendari. Txoko-Zar zortzi- koa, Barandiarandar On Mikel zu- zendari. Alaitasuna «Rondalla», Ar- mendariztar Juan Bautista zuzen- dari.

Talde bakoitzak beren eres-sor- tarako bi eresi aukeratuena aur- keztuaz, labor eta goxo eman zu- ten eresi eta abesti alalez osa- tutako ekitaldi xamurra. Antzokia bete- an, entzuleak gozoro giñan, abesti eta soiñu-zoliaz gogotsu txalotuz.

Bigarren atalean; Erri-eres batza, Erri-txistulari batza, ta gizaemaku- me, biatariko Abes-batza batera,

Gorortxaren zuzendaritaren pean; Aranburu eresgille ospetsuaren (Ze- ruko Deia) adierazi ziguten. Nola adierazi gainera! Abeslari bakarre- koa Galfarsorotar Joxe zalarik, nausikero abes-erestu zuten goi- maillako arte-lan garrantzitsu au. Goiz-ereski, Zortziko, ta Biribilke- ta atsegingarriak aurkeztuaz.

Jai-aldi osoa gogozkoa bagen- duen era, bigarren atalak ase ziz- kigun barrego entzumen sakonak. Bukaeran etengabeko txaloen or- daintzat azken zatia birregin zute- larik, poz-arren giñan entzule ugari- ak, talde egikor auek goratuaz.

Zorionik sutsuenak, talde, babes- le, eta laguntzaille prestu denoi.

Beste saio bat antolatu leen-bai leen, negu garai onetan atsegin bai dira antzoki epelean onelako jaialdiak.

ODOL-EMALLEAK

Abenduaren 6an izandu zan, Le- gazpiko Elkartean odol-eskeintza, eta bazkide berrien azterketarako odol-ateratzea. 29 bazkide eskeint- za onetarako odola eman zutenak, eta 9 berriak, aztertzeko eman zu- tenak.

Aipagarri da benetan bearrean arkitzen diranen alde, ongi-nai utsak eraginda, barrenean sortzen dan eskeintza gogo au. Mundu biurri onek, gorrotoa, ikusi-eziña, eta ajo- la gabe-keria ugari badu ere, beste alderdi txalogarria berekin darama.

Bear-bada, ixillan, apalkiro, baiño egikor. Gorrotoa, ikusi eziña, ta ajolagabe-kerien ordainez, lagun-ur- koarenganako maitasuna, begirune, eta ardura sakonak darioten alde- erantzia.

Goresmen garri, alderdi onen ja- rraitzaille ditugun Odol-Emalleak.

IKASTOLA

Abenduaren 5ean arratsean, ikas- tolaren alde laguntza apurren bat lortze arren, giza-emakume talde bat (batzuk gazte, urtetsu besteak) erriko kale, eta auzoak zear ibilliak dira, txistu ta abesti alaien soi- ñuan, aterik-ate txanponak eska- tuaz. Erriak arrera onez artuak izan bear dute jakintza arazoan, eta batez ere ikastolaren iraupe- naik ainbat arduratzen dituan gaz- te, eta aurren guraso zintzo auek.

Irakaskintza gaien, aurrerapena, eta erraztasuna, besterik entzuten ez dan (ogeigarren mendean) se- me-alabei ondorenerako giza-bideak, aurtzaroan ikasi zuten euskera iz- kuntza garbian erakutsiko bazaie, ona emen zer jokoera artu bearra dagoen. Zosketak... Atez-ate es- kean... Beste laguntzarik ez-bai du- te ikastola auek aurrera jarraitze- ko. Dena aurren gurasoen bizkar bota ezker, nola erantzun guraso langilleek?

Agintariak ez-ote dira kontura- tzen, laterri baten lotsakizuna bai- ño ez dala au, gaur egunean?

Ikastola berrien egintzarako baz- kideen aldetik, itzaropen onak di- tu batzordeak, bear ainbat diru es- keintza iritxiko ote-dan, alegia.

Eguberri zorientsuak irakurle guz- tiori.
Legazpin Abenduaren 13,an An- duazatar Bitor.

AN-ZAN

mutriku

GOGO JARDUNAK

Igaro zen aste osoan, Eleiz-na- gusian, zaar eta gazte, emakume eta gizonetako, urteroko gogo-jar- dunak izanak dugu. Itzaldi bikain eta goi-goienetakoak eman ere, Aita Iñaki Bereziartua prantzizkotarrak. Nai eta itzaldietara jendetza aun- dirik bildu ez, bertaratu zirenak, itzaldi oiei esker, onura on eta asko jaso zuten, guztiak pozez gel- diturik. Ona emen bertan erabili ziren gaiak. «Gizona eta bere nortasuna». «Gizona eta bere maillak». «Kristautasuna, gizonari erantzun- ten». «Non dago fedearen muiña». «Erlitioak, eta kristau fedea». «Fe- dearen eskakizunak». «Fede ara- zoak sortzen dituen gorabeerak, sendian, elduen eta gazteen ar- tean». «Eziketa eta elkar-izketa». «Elkar-izketaren baldintzak». «Fede arazoetan sortzen diren zenbait jo- kabideri erantzuten, gurasok dio- tena, eta gazteak diotena gogoan edukiaz».

Goguan ondo artu ditzagun itzaldietan esanak, Ondoren txarrak izango ditu zuzen ibiltzen ez danak. Gorroto bizi, ikusi-eziñak, oik ematen digu lanak, Saia gaiten elkar maitatzen agindu bezela Jaunak, Bestela alper-alperrik dira meza ta gogo-jardunak.

ANTZERLARIAK

Abenduaren 30ean, larunbatean, Zumaiako «AITA MARI» aretoan, Motrikoar antzezleri trebeak Begi- ristain jaunaren iru ekitaldi dun euskal anterki ederra antzeztuko dute. «APAIZ LANGILLE TA GI- ZON».

Zumaiarrak antzerki-zale diranez, une atsegingarri bat igarotzeko zo- ria izango duten itzaropena dugu.

EGUBERRIAK

Iritxi zaigu Gabon eguna. Egunik alaiena, pozkarriena, Oitura zaar, eta ainbat abesti eder entzun eta gogora-erazitzen digun eguna.

Gabon egunak berakin dakazki alaitasuna, maitasuna, zoriona, sen- di arketo batasuna. Sendi gutxi izango dira, etxetik kanpora arki- tzen diren seniderik Gabon gabe- rako beren jaiotaerriko sukalde epe- lera bilduko ez danik. Izan ere, Gabon gabeko pozak eztu lokarri- rik

Gabon gabean oitutzen dugu guziok ari ona.
Bixigu, legatz, bakallu xaltxa, bakoitzak berak alduna.

Egia. Afari onaren ondoren, guz- tiak alai, denak bertsolari, denak abeslari, ala da, abesti gabeko Ga- bon, ez da benetako Gabon.

Alaitu ta poztu gaitezen gaurko gabarekin,
Gure Jesus onaren etorrerarekin.

ANDONEGI

bergara

Euskal EZIBIDE saioak. Abenduak 12, asteartea.

Bi egun auetan gure entzumenak gozatu dira Maestria Eskolan eman diguten itzaldiagaz.

Lenengoz, Benantxio Otaegik jar- dun sakon baten bidez, maixu aun- di baten gisa, agertu zigun Euskal Herriko Lehen Gizartea.

1. Euskal Herriko lehen-historia- ri buruzko lanak.
2. Paleolitos aroa Euskal He- rrian:

—Giza-arrazak.
—Ekonomia.
—Teknika.
—Artea.

3. Paleolitos aroko sorrera eta bere esanahia.
4. Artzantzaren eta nekazaritza- ren sorrera. Euskal Herrian Trego- arri edo dolmenak. Euskal arraza.
5. Burni garaiaren ezaugarriak: Cromlech-ak.

Ezpai gabe, Maestria Eskolako —aula magna— jendez ondo orni- tua arkitzen zan eta arreta audie- naz jarraitu ziran itzaldiaren mailla guziak.

Sarreran, berak egindako libu- ruak, ETORREK argitara emandako liburuak, erruz saldu ziran.

Abenduak 13, azteazkena.
Oraingo onan bergararrek adur- aundia izan degu.

On Joxe Migel Barandiaran izan degu izlari, eta nolako itzaldia! Nere lerro auek ezin dute esan onen jatoritasun eta aunditasuna. Itzaldia luzea izanarren jendea etzan aspertzen maixu aundi onen itz jarioaz. Ona emen gaia:

- Euskal Etnia.
1. Etnia zer da?
2. Euskal bizikerak zer izan di- ren.
3. Euskal gizarteak.
4. Euskera bera.
5. Euskal gizabidea.

Onen bukaeran alkar-izketa izan zan eta bere izenpea jarri zuen bere liburuetan.

Pozik egon litezke arduradunak, itzaldi auetan gero eta jende geiago ikusten dalako.

Alako saioak sarriago izan beh- ar genituzke baiñan hortarako beste Irigoien bat bear degu.

Beste iru itzaldi entzungo ditugu saio onen barruan; auek izango di- ra il onen 15, 19 eta 20 an; da- torren zenbakian emango degu onen berri.

Eriotza.
Joan dan igandean illak 10, lur- peratu zan on Jose Beitia Beitia, 77 urte zituala.

Bere emazte eta aaide guztiei, samin agurra.
Esker ona.

Arteaburu eta Ezkuluatar Serafi- naren sendiak agertzen du lerro auen bitartez, bere esker ona il elizkizunera eldu diran guziei.

MENDIKOI

getxo

ITAUNKETA

«Itxas-Ganeko» kultur-taldeak in- kesta bat egin dau Algortako li- burutegietan. Itauketa hau bi par- tez osatua da, lehenengoa liburuaz oro-har eta bigarrena euskal libu- ruaz, erdaraz eta euskaraz. Bede- ratzi liburutegitan jaso dabe Itxas- -Ganekoek beren inkesta.

Hona hemen ondorio batzuk:
Algortan liburu gitxi saltzen da, gehienak umeentzako liburu eta ipuinak, gero nobelak eta saiaerak. Nobelak gazte eta adinekoek eros- ten ditue, saiaerak gazteek baka- rrik.

Kirol-jazoera edo gertaera, lite- ratur-sariek eta abar eroatera bul- tzatzen dabe.

Gehienetan liburuak garestia dala dimoe; salduenak esku-liburuak.

Eskuarki gitxi irakurtzen da.
Euskal liburuarekiko txarragoa dogu; oso gitxi saltzen da, euska- raz ia ezer ez, salduenak euskal irakaspide edo metodo eta umeen- tzako liburuak. Prezioak garestiak dira.

Liburu-saltzaille batzuen iritziaz euskaraz liburu gitxi da umeen- tzako.

FRONTOI ETA PIZINAK

Fadurako Kirol-Hurian, frontoi eta pizinak eraikitze baimenak emon ditue. Lanak hasterko pun- tuan dira eta hamazortzi hilabete- tan amaitu beharko dira.

GABON ABESTIAK

Urtero legez Gabon egunean, Al- gortako Ikastolako umeak gabon- -abestiak kantatzera urtengo dira herriko kaleetatik. Hemendik txalo bat ume horrentzat.

aiete

Oraingo honekin, Euskal Herri- ko beste «herritxo» batek ere ir- ten nahi dizue, bada, bere ixil- bizititik. Poesiazko ixil-bizitze hau —denok dakizue— urteoro izan ohi da periodiko askoren bidez erabat urratua. Urratze honen protago- nista, ordea, ez dugu aietearra, ez eta euskalduna ere, eta beraz ba- da garaia aietearren batek nunnbait zerbait nolabait esatekoa. Hauz duzue, bada, gure egitekoa. Saia- tuko gera ahaleginean betetzen.

Historia laburra du Aieteko ikas- tolak, bainan ez horregatik espe- rantzarik gabekoa. Beren seme-ala- bentzat euskaldun heziera gosez, guraso batzuren sakrifizioak 7 hau- rrekin irekitako ikastola bihurtu ziren 1969an. Urrango urtean 25 haurrek eman zioten hasera ikas- taroari. 40 haurrek urrengoari eta 42k aurtengoari. Haur denak par- bularioko dituzu, adin horretaz go- rekoak Antiguako Jajintzara bai- toaz. Gure eskerrik beroenak he- mendik, bertako andereño diren Arantxa Aldasoro (Iazkaotarra) eta Pili Gofi (donostiarra) bi emaz- teki ezkondu sakrifikatuei. Geroak esan beza, ikastola bikaina izan zen.

IKASTOLA

Historia laburra du Aieteko ikas- tolak, bainan ez horregatik espe- rantzarik gabekoa. Beren seme-ala- bentzat euskaldun heziera gosez, guraso batzuren sakrifizioak 7 hau- rrekin irekitako ikastola bihurtu ziren 1969an. Urrango urtean 25 haurrek eman zioten hasera ikas- taroari. 40 haurrek urrengoari eta 42k aurtengoari. Haur denak par- bularioko dituzu, adin horretaz go- rekoak Antiguako Jajintzara bai- toaz. Gure eskerrik beroenak he- mendik, bertako andereño diren Arantxa Aldasoro (Iazkaotarra) eta Pili Gofi (donostiarra) bi emaz- teki ezkondu sakrifikatuei. Geroak esan beza, ikastola bikaina izan zen.

Aiton-amonek ere bai. Horieta- ko asko eta asko urte guztian etxetik ateratzeke egoten dira. Baina, egun horretan, gertatzen zaizkien abe- stiak, dantzak ikustera eta janari goxoak jatera, pozik elkartzen di- ra. Ordu zoragarriak igarotzen di- tuzte, eta batez ere, gure artean hain ezaguna den Pantxika alai- panderoarekin azaltzen denean.

GABONAK

Gabonak pozpario direla eta edo hala izan behar luketela behintzat eta majina bat txanpain-torxo izanen da ezarri-gozatze ugari- ren bide. Ez dezagun, ordea, ahaz eus- kaldun gerala eta kondizio honek euskaldun presoetaz ere arduratze- ra behartzen gaituela. Datorren ur- tea, bada, ez bezelako igaro ezer praktikorik beren alde egin gabe. Urte askotan barrena txanpain- aren hotsa nolako den ez dakiten gure anaiek, jakin dezatela behin- tzat anaian berotasuna nolako den.

Aurreko urteetan bezala, aurren ere aldi berezi honetako zerbait gertatzekotan gera, bai haurrentzat bai aiton-amonentzat.

Haurrek ikas-leketan oporketak dituztelarik, egun berezi batean izanen dute, denak elkaturik, be- ren jolas, abesti, izkirimiri eta aba- rrekin, ordu alaitu batzuk igaro- tzeko zoria.

Aiton-amonek ere bai. Horieta- ko asko eta asko urte guztian etxetik ateratzeke egoten dira. Baina, egun horretan, gertatzen zaizkien abe- stiak, dantzak ikustera eta janari goxoak jatera, pozik elkartzen di- ra. Ordu zoragarriak igarotzen di- tuzte, eta batez ere, gure artean hain ezaguna den Pantxika alai- panderoarekin azaltzen denean.

OLENTZERO

Neska-mutil gazte taldea Jesus Mari Zabaleta zuzendari duela, ga- bon eta urte zahar egunetan egi- nen dituen irten-aldietarako abe- stiak gertutzen hasia da. Hauz guztiek ikusi ahal izanen dute eta ondo eskertuko dutelakoan gaude.

TXERTUBI


Inmobiliaria Tolaretxipi

Zorionak eta Urteberri on

- Etxe bizitza salerosketa eta alkillerra
- Prestamenak
- Hipotekak
- Ezeren konpromisorik gabe argitasunik emateko prest gauzkazu

San Martin, 35 Urrutizkiña: 41 95 06

— DONOSTIA —



Oñati

pasai antzio

DEPORTEA ETA KULTURA

Azaroak, 1. Abenduak, 3. Kaleak pilpilka. Xirindulariak omen... festak ziruditzen.

Beste egunen batean, ez du axolarik noiz, erakusketak bat dela, edo eta Donostiako «Orquesta de Cámara» delakoak ekinaldi bat egin behar duela herrian, edo bestela mintzaldiak eratu direla, Zine-Klub bat ere ba omen dabilela jo ta ke ahaleginak eta bost eginaz eta... kaleak pilpilka. Ta kultura-leku hoik biluzirik!

Gu ez gaude kultura horren alde, aspektu guztietan. Baina kultura hori herrira daitekeelakoan gaude. Ta hortarako, baloratu eta kritikatu egin behar dugu lehenik kultura hori.

Kultur-heziketa bat izango denean eta herria kultura horretaz jabetuko denean edukiko dugu benetan herri-kultura bat. Bitartean, nora jo? Kritikatzearaz aparte, ekin dezagun helburu horretaz.

Triste da egiazki gure herri honen egoera:

- 27 taberna-zulo
- 4 elkarte gastronomiko
- 5 elkarte kirolzaleentzat.
- 2 kultur-elkarte
- Euskal-kultur elkarte bat, eratzeko asmotan oraindik, diru-kontuaren erruz.

Gazteria gehiena nora jo ez dakitelarik dabil. Gastronomi-elkarteek hogeita hiru urtetik gorago gazteak lilurazten dituzte. Soldaduska bete ez dutenak, kirol-elkarteek. Tabernak demokratiko dira oso eta hamabost urteko bigotedunek ere bisitatzen dituzte.

Kultura neutroko elkarteak ere ezinik dabilta.

Behin edo aipatu dugun «Kexaldi» berriz, dexente omen dabil jendearen aldetik (gazte jendea batik bat), baina itorri diru-arazoan.

Ez da ez, oso etsegina gure herriaren egoera. Dena dela, zenbait tek dio, premiazkoena, alameda konpontzea dela.

OHAR TRISTE BAT

Duela zenbait aste, bere lanean ziharduela, herriko gazte Orive hilik gertatu zen. Goian bego.

Halakotan «halabeharrez» esaten da. Guk ez dugu holakorik esanen, zeren eta bi hilabetetan hiru langile hil bait dira enpresa berberan. «Seguridad e Higiene» delako kanpaina hori fruitu eskasak lortzen ari da benetan. Izan ere, nolaz sar daiteke zenbait tonelada pisatzen duen makina baten azpira kasko eta esku-barru, betaurreko eta bota hutsez? Ba ote da honela sartu beharrik?

Ohi bezela, zoritxarrak ditu kulturak!

KOLDO-XABIER

errenteria

EREINTZAREN LENDAKARIA-REKIN ELKARRIZKETA

Gabonak urre ditugula eta geure herriko jai giroa ezagutu nahiak Ereintzaren lendakariarengana eraman gaitu. Miren dugu, hain zuzen, eginbide au betetzen duena. Neska gazte eta langile kezkatia. Hara gure galdera:

- Aurtengo Gabonetan nolako jaiak antolatuko asmoa duzue?
- Ereintza taldearen ardurapean, Irundik Donostiara bitarteko taldeen Eguberri Abesti sariketa bat izango dugu abenduaren 30ean, arratsaldeko 8 etan, eta Lege Zaharraren Eparantzian. Abeslariak, guttienez bi euskal abesti kantatzen beharturik dira. Amasei urtetatik goragoentzat antolatua dago.
- Besterik ere bai ahal duzue, Miren?
- Herri barruan dauden gainontzeko elkarteekin bat eginaz, Olenztzere ateratzeko amoa dugu.
- Euskal Olenztzere, edo eta guttienez, Olenztzere euskalduna izango da...
- Noski!
- Mirenen erantzuna azkarra eta bizia izan da. Luzaroan mintzo gera. Ereintza eta Ibaika elkarturik umetxoan jaialdiak ere antolatuko dituztela, dio errenteriar gazteak. Beren Olenztzere, jaiotza, giñol, antzerki eta zinema, eta hainbat ibillaldi berezi izango dute.

Ea bada, Gabon jaialdi auetan zahar eta gazteok euskaldungoari entsiaz bizitzeko erabaki sendoa hartzen dugun.

ANDRA MARI ABESBATZA

Azken egun otan Andra Mari abesbatzak ez du ezeren oporraldirik. Bertako abeslariak gogor ari zaizkigu han eta hemen abesti lanari utzi gabe. Azken aldi ontako saioak ikusita hori esan ditek behintzat. Abenduaren 15ean bere zuzendariak, Jose Luis Ansorenak hitzaldi bat eman zuen Euskal Musikaz Azpeitiko Antxieta Etxean. Abenduaren 17an Azpeitian, 19an Tolosan, 23an Ondarrabiako Eliz Nagusian, etengabe saioak eskainiaz. Urtarrilaren 7an, Algortako Biotz Alai abesbatzak hemen egingako abesti saioaren truke, Algortanagustuko dute. Jarrai bada, orain bezain gogor eta sutsu lan zail horretan.

MAHASTI

deba

OSTOLAZA ELKARTEA

Sarri aipatu dugu Debako «Asociación para el fomento de la enseñanza y la cultura» elkarteak.

Herrian, heziketa eta kulturaren alde lan egiteko dauden erakundeak elkartu, kultura hibe berriak sortu, zaindu, indartu eta zabaldu da elkarte honen lehen betebeharrak. Beraz nabarmen eta agirian daudela esan dezakegu honen egingizunak.

Baina badirudi askorentzat elkarte hau Ostolaza zenak berak antolatua dela eta harek berak ezarri zizkiola behin betirako bide guztiak. Ostolaza zenak dirutza bikaina utzi zuen elkarte honen eskutan bizitzeko azken orduan eta nahian.

Lege aldetik bere buruaren jabe den elkarte dugu eta beronek ikusi behar du diru hori nola erabili eta zabaldu. Elkartearen araudi barruan askatasun osoa dute bertako bazkide guztiak gauzak erabakitzeke. Elkarteak ez da harena edo honena, denona baizik.

Baina urteak dira elkarte hau osohila dugula. Ez da hain argia izan behar hontaz jabetzeko. Hemezortzi dira elkarte honen batzordeko. Gehienetan laurden bat ere ez da biltzen. Lotsagarria, baina egia. Elkar-burruka somatzen da diren arduradunen artean. Hutsen gelditzen dira elkarteak egin lezazkean lanak.

Baina ez dezagun itxaropena gal. Aurkituko ditugu giltzarriak gizonki jokatzen badugu.

Bi urte ibiliak dira arauak aldatu nahian. Ez helburuak, noski, batzordea osatzeko bideak berriki nahiz baizik batipat. Laster lortuko dela dirudi. Honela sar ditek hain beharrezko zaion haize garbi eta berria.

Gauza on asko egingo litzake batzordea berritzeke bideak somatuz eta lan egingo duen jendea barruan sartuz. Zenbat eta nola egiten den datza kakoa.

Ea berpizten dugun, bada, Ostolaza-elkarteak. Erraz da maxiatzea. Noiz arte bizkar emanaz jarrai?

Orain dugu aukera eta egokiera. Egiten dugun lanak neurtuko gaitu.

IDIATZERA

lezo

ERDAL EGUNKARIAK

Donostiako erdal egunkariak, gu ere noizean behin haserretzen gaituzte; gutxitan aipatzen dute gure herria, baina aipatzen dutenean hankasartzeko. «Villa de Lezo» titulu berria ipini diote, betidanik «Universidad de Lezo» izan bada ere, eta herriko seme ospatsuren bat aipatzerakoan, berriz, «el donostiarra» deitzen. Alegia, gauza batzutarako donostiar gera, «capital»etik 9 kilometrotara besterik ez bait gera bizi, baina bestetan 476 kilometrotara bizi direnak baino gutxiago ezagutzen gaituzte.

GABONAK
Aurtengo Gabonetarako Alerru Elkarteak Olenztzere eta Idatz eta eskulan lehiaketak antolatu ditu. Olenztzere-kanten ensaiatzeko ez omen da inortxo ere agertu; impro-

bisatzea oso erraz egiten ez baizaigu, aurtengoan tokadiskoek jo beharko dituzte kantak eta kamioi baten gainean eramango falta ez zaigun «olentzerotxoren» bat.

Idatz eta eskulan lehiaketarako lanak Eguberri egunerako entregatu behar dira. Txartelak ez dio idatz-lanak euskaraz ala erdaraz behar duten, baina segur nago bitan izango direla onartuak.

HIZKUNTZABITASUNA

Txartela aipatu dudanez, esan dezadan txalogarri iruditzen zaidala hauk bi hizkuntzatan egitea, lehen españolez besterik ez bait ziren egiten («Ibillaldi neurturako»ak euskaraz hutsean egin ziren nahiz esku-programak bitan).

IDAZKERA

Idatz eta eskulan lehiaketarako txartelaz berriro. Lehenik euskaraz irakurri dut, hala dago, baina deusik ez dut ulertu eta erdarazkora pasa behar izan dut. «Euskaraz» idatzi duenak erdaraz oso ongi dakiala segurki esanl iteke. Ortografiaraz zerbait ikasteko eskatzen diogu. Hala ere, ez dut zalantzarik «idazle» hau ez dela Loiolan ortografia irakatsi nahi duena.

AUTOA

Kale Nagusian aspaldidanik ondaturik eta aparkaturik dagoen autoa eramatekoak direla entzun dut. Aleluia!

ZORIONA

Bekigu urte berria aurtengoa baino hobea. Zorionak!

SistiagaenekoPello



Praga-tik

Nire adiskideei ta «Zeruko Argia»-ren irakurle guztiei zorionik beroenak Gabon eta Urte berrirako.

Europa-ko erdian datzan Praga-ko hiri ehundurduenetik agurrrik sutsuenak bidaltzen dizkitzuet, «Zeruko Argia» izeneko asterokoaren bidez.

«Zeruko Argia» neuk ere atseginez beterik hartzen dut eta asteoro gogo biziz zenbaki berri bakoitzaren zai nago. Benetan txit ederrak eta jakingarriak dira bertan agertzen diren artikulak, bertso ta berri guzti-guztiak. Aldizkari paregabe hau ta nire adiskideen euskerazko eskutitzak nerretzat lokarri txit maiteak dira Euskal Herriarekin batutzen nautenak.

Osasunez ez nabil ongi, hala ere eginahalean noizik behin saiutzen naiz nire indar apalen arabera «Zeruko Argia»-n edo beste aldizkarietan euskerazko zerbait argitaratzen. Beti bezala, nire euskerazko lan guztien helburu bakarra da euskaldunen bihurtzetan, batez ere gazteen artean, euskera renaganako maitasuna bizkortzea.

«Gora Euskal Herria eta euskera» deiarekin bukatzen ditut nire lerroak.

Praga tik 1972-gko Abenduaren 10ean.

Norberto Tauer

irakurleak

mintzo

«BASA-JAUN»

Erabagi bat artu baiño le-nago askotan oldoztutze nai-go izaten dot, gero atsekabe izan ez didan; beraz artu de-dan erabagia sendoa izan-da.

Zeuok dakizuen letz, edo jakin bear dezuen letz, ainbat urtean izan naiz ZERUKO ARGIA-ren irakurle ta, laguntzalle baiña aspaldiz geroago ta azpertzat aurkitzen naiz asteroko orrei emon daursazuen izakerari, beroretan darabilzuen idazkerari; euskaldun geienok ugoztutzen ezdugun alperriko izki utsaz orri-alde guztiak bete ondoren, euskera mordoloz zikindu egin dezuelako gure euskera txukuna ta, egiz, ori ezin det jasan. Nik ezdet euskera iforen jantziekin «apaindu-ta» ikusi nai, beronek daukesalako janzi apain ederrik aunitz, beste edozein izkuntza apainen al-damenian irauteko, ezetariko lotsa barik. Orretara izanik, ez-dago esan bearrik, gaurdik aurrera uts eman daiz-tezuela asteroko ortatik, beste garbitasunik egiten ez-de-zuen bitartean; askotaz atse-giñago dodaz «AGUR» da «GOIZ-ARGI».

Beste barik euskeltzale

Altuna'tar Josu «Basa-jaun»

Uarra: nai ba'dezue, argi-tzdu zeizkie «irakurle min-tzo» atalean.

Teatroa

Ez, horrela ez. Ez gehiago teatrorik, ez gehiago itsuz-rezko kristautasunik, ez gehi-ago abertzaletasun goxo eta bigunik.

Negargarria aurtan Gabonetan euskaldunok aukeratu dugun bidea, negargarria gure jokabidea. Esku artean dar-ramagun sumatu beharko gen-dukean zigorkada minkorrek ez du gure kontzientzia lozo-rroritik esnaerazi.

Betor txanpaña, betor, jai-berria den haur horren ize-nean, jaialdia, juerga, eta on-gi bizitzeko «eskubidea». Be-tor urren eguneko meza na-gusia, betor...

Kanpoan daudenak, erbes-tean halabeharrez aurkitzen direnak, gure herritik at aur-kitzen direnak, zigorpean da-goena... Hor konpon.

Negargarria, penagarria... Horrelako trajikomediarik...

Sunsundegi (Errenteria)



irune

OPARIAK



San Jeronimo, 17

Urrutizkiña: 42 41 84

— DONOSTIA —

Ibiltzeko gogorik ba-dezu


eta SIREICA'k egingo du gaiñerakoa
artu itzazu zure maletak...

Sireica

Urrut.: 411285 - 415198 - 425184

DONOSTIAN - PEÑAFLOIDA, 1


Renfe ta beste burni-bidetako txarteak; bertako ta
erbestetakoak; itxasontzi ta aidekoak. Beribil-alki-
lerra. Eztai-ibillialdiak, eta abar...



TXIMIST-INDAR SAILLA
Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de maniobra, distribución y control



OLIO-INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICO

GARBE-LAHMEYER
WUPPERTAL-ALEMANIA'ko
Etxearen banaketa ta
teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:
REX-ROTH GMBH Alemania
RUHRITAL Sp A Olio-indarra. Italia
TUROLLA Sp A. Italia

Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO



Lantegi ta landolak:
Jolasokietak (Herrera)
SAN SEBASTIAN
Urrut. 353840 (7 ari) ta 351860
Telex. 36173 GOIME E
Erakusketa eta denda:
Iparraguirre, 15-SAN SEBASTIAN
Urrut. 428082 ta 428625
Ordezkaritza:
Edujoja Sordana, 18. Urrut. 220005-08
VITORIA

Ikus eta txaxta zerorrek

BYASS 96

esaten duten

bezain ona da...

Gizon danak dio!

BYASS 96



Gezurrik gabea da

GONZALEZ BYASS

Gipuzkoako Ordezkarria: Lugariz Auzoa - Gurutze Taldea, 7

Urrut. 413994 - Apd. 1374 - DONOSTIA



OTATEGI ETXEA

GOZOTEGI TA PASTELDEGIA

TE GELA



Garibay, 23

Urrutizkiña: 41 08 52


Narrika, 13

Urrutizkiña: 41 52 54

— DONOSTIA —

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru
aurreeratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan
etorriak

JUANTXO BARRA

OGI-ARTEKOETAN BEREZIA

ARDOAK — Akeita o — Edari biziak

Embeltran, 6

Urrutizkiña: 41 87 46

— DONOSTIA —

ELIZAREN BERRI

Arantzazu 1.972

ABENDUAK 3

ELIZA, SEKSUALITATEA ETA NAGUSITASUNA

Pierre de Locht kalonjea, 56 urteko gizasemea dugu, beljikarra. 1959az geroztik, CEFA, hots, Belgikako Familiar-artzantza Bazkunaren zuzendaria, eta Bruselasko Presbyterium Batzordearen aintzindaria.

Hona, bada. Erromatik eta Bruselasko Nuntioaren eraginez, Belgikako gotzaiak aurpegiak damaiten Elizaren seksual-morala oso-osoa onartzen ez duelako, eta hili-kolo dago aipaturiko postu bi horietan.

Locht kalonjeak ez du asaldatu nahi gotzaien erabakiaren aurka, baina ez du onartzen hori eta horrenbestez, eta kexu da, gogor kexu ere, leporatzen diotenaz baino areago, erabakia arras alderdikoi hartu dutelako: berari hitz erdi bat zuzendu gabe hartu bait dute erabakia, eta argitasun apurrik eman gabe. Ez berari, ez berarekin seksual arazoetaz diharduten ezkondu katolikoei ez zaie eskatu iritzirik, baizik nagusibidez baztertu dute.

Locht-en deklarazioa hauxe izan da mamiari buruz: bere asmo gutzia, seksualitate-dotrina eta artzantzabidea uzartzea izan dela, printzipioak eta bizitza bateratzea.

Bestalde, Bruselasko Presbyterium Batzordea, bozketa bidez eta 19 alde eta 1 aurka direlarik, Locht-en alde atera da: gaiaren eztabaidan sartzeke, Presbyterium-en aintzindaritzan jarrai dezala eskatzen dute, eta kalonjearekiko gotzaien ihardunbidea gaitzetsi egiten dute.

Suenens kardenalak, bere aldetik, lautatik hirutan Locht kalonjearekin bat datorrela aitortzen du (hartuko luke batek, halajaina, proportzio horretan onartua izate!); baina, nahiago lukeela, apaiz horrek bere bideari, eliz jarraria konprometituaz ez, baina bere burua bakarrik konprometituaz jarrai dizaion.

Eta mamiari gagozkiola, eta seksualitateari hain zuzen, hona Locht-en zenbait baieztatze:

1) 1970eko Urtarrilean, Frantziako midiktu katolikoek batzurrean eskuhartzen zuelarik, honela mintzo zen: "Erliziozko arrazoin

hutsak ez dira aski arrazoin, zelibatoa oinarritzeko. Giza-egoeraren bat fedez onartzean dago gako. Apaizarentzat zelibatoa derriozko baldintza emanaz, beraren esanahia maxkaldu egiten da.

2) Hilabete geroago, irratiaz, us-te eta gogo hau agertu zuen: dibortziatuei ez dakiela eragotzi jaurtzea.

3) 1972ko Martxoan, Katoliko Intelektualen Astean (Frantziaren), honela mintzo zen: "aborto oro erailketatzat emateak, inork eman ez dezakeen erantzuna besterik gabe onartzen dela adierazten du: bat, pertsona noiz gertatzen delako, erantzunik gabeko galdera izanen da beti; galdegin behar litzakeena, bat pertsona nola bilakatzeko den da (...). Gizatar izatekotan, ernaritasunak egintza askea izan behar du".

PARAGUAY-KO GOTZAIK ASKATASUN BILA

1968az geroztik, Paraguay-ko gotzaiak eta gobernuaren etendura bizian bizi dira.

Bertako 10 gotzaiak USAko katolikoei eskabide bat egina dute: aspaldiko urteetan bialtzen ari diren diru-laguntza moztu dezatela alegia.

Laguntza hori, hain zuzen, gotzaien iritziz, Stroesser jeneralaren gobernu diktadorearen euskarri gertatzen bait da, eta delako erresuma hori USAren menpean edukitze bide, eta erresuma barruko inizatibak itozteko bide.

Laguntza hori, datorren urteko ekainean etengo litzake. Halaz gutziz, USAko katolikoek beren ordezkari bat bialtzeko asmoa dute, orain arteko laguntzabidea moztu, eta beste era bat antolatzeke.

LAIKO BAT TEOLOGIA-FAKULTATEKO BURUZAGI

Joseph Malik Paderborn-eko teologia-fakultateko Buruzagi (erreto-re) egin dute. Historian lehenbiziko kasoa omen da laiko batek halako postua bereganatzea.

BAKE ASTEA ETA BAKE EGUNA

Astea, 1972ko Abenduko 11tik 17ra, eta eguna, 1973ko Urtarrilaren 1a. "BAKEA DITEKEENA DA". Hori da aurtengo slogana.

Bake aste hori PAX CHRISTI mugimenduak hasi zuen Frantziaren orain dela 70ren bat urte; Urtarrilaren 1-go Bake-eguna, berriz, VI Paulok erabaki zuen 1967an.

"Bakea ditekene da". Arrisku bat dakusat horretan. Haurrak Erregeen opariren zai bezala, giza-helduak Jesus Haurtxoaren bake-opari zai egotekoa. Baina, haurtxoen postura aldatzen ari den bezala, helduena aldatuz joanen delako itzaropena dut.

ZIPRIZTINAK

ELIZAKO PLURALISMOBI-DEAN GURASOAK ERAGILE!

Zenbait herrixkatan haurtxoen meza izenekoa eta izanekoa ematen saiatzen dira. Meza hori antolatzen duen apaizarekin konforme ez dagoen gurasorik bai ordea. Eta beren haurtxoei, ordu berean beste eliza batetan ematen den Mezatar joateko agintzen. (Inondik ere, ahal balute, latinez ematen litzakeen mezatar bialiko litzukete). Haurtxoak, ordea, gusterago nonbait gurasoen gustoko ez den apaizaren mezatan, eta haurtxoak doaz. Baina, arratsaldean, mezatan hartu duten gustoa noiz egin behar: igandeko pagarik ez, eta igande arratsalde gutzia etxe barruan egon behar.

—Bi egun segidan nahiz tartean zubi dela, bi jai segidan datozen, bi egunetan meza entzunarazi ordez, apaizen batek (bihurritzen batek!) egokiago ikusi nonbait, egun batetan azterketa eta irakurgai giroko elizkizuna egin, eta biharamonean bakarrik Eukaristia egitea, haurtxoekin.

Baina, zenbait guraso "kezkatu eta arduratsu", Mezarik gabeko jai horretan haurtxoak bigarren aldiz elizara bial beharrean aurkitu da.

AMUNSA

Zer izango ote da, alakoek eta beste alakoek gertutu omen diate, goikoek gazteria bere eskuetan euki nahi omen diate, «Restaurazioko» pauso bat omen duk e.a.

Orrelakoak eta gehiagok entzuten ziren Abenduaren 3aren aurrean. Deia egin zen. Propaganda ez asko eta egin zena behekoek behekoekin egindakoa izan zen.

Neuk, personalki, eztabaida berdiña jasan nuen. Lehenik, ez nuen joateko asmorik, beste montajeren bat ote zen susmoa nuen; geroztik, batekin eta bestekin itzegin ondoren joateko asmoa artu nuen. Nerekin batera, ezkonberri bikote kristau bat joan zen.

IKUSI GENUENA

Espero zuten eta uste genuen baiño gazte gehiagok bildu zen Arantzazun. Gutxienean, minoria bat, taldetan lanean ari den gazteria. Gehienak «borondate oneko» gazteria («Juventud silenciosa» deitzen den oietakoa). Parlamentuetako bereziketari jarraituz «auditores» deituko nieke.

«Zer ote ziotek... goazen ikustera» dioten orietakoak. Taldetako billeretan parte artzerik ez nuen izan, orregatik taldetan itzegin zena, gero, Mezatan egin zuten bildumaren bidez dakit.

Gazteraren adina 24 urtetik beherakoa. Itxilluek, gure artean izan diren itxilluek barruan arrapatu ez duten gazteria berria. Erreketak eta txokerik probatu ez duen gazteria berria.

Estudiante asko ikusi nuen, Donostiako gazteen artean batez ere. Langille gutxi zela uste dut.

Gazteriak, oso gaztea izanik, teoloji itz-jario aundiegia zuen. Goitik beherako reflexioa, behetik gorakoa baiño gehiago. Mezatan egin ziren bildumek teolojiako eskola baten bilduma ziruditen. Itz asko, askatasuna, askatasungintza, erria, instituzio kritikoa... ea, itz manipulatuak izateko arrisku aundia zuten, orretaz ari zen gazteria politikaz oso gutxi baitaki eta politikan aritzeko aukerarik ez baitu.

Gure artean konpromisoak duen sentidu orretan konprometitutakorik asko ez nuen ikusi. Bestalde, ez dira orrelako bilkurak, millakako bilkurak alegia, jende orren giro berezia.

Meza, bi Gotzaiak zuzendu zuten. Eukaristi ospaketa onek, aurrez esan ditugun kontradizio denak bildu zituen.

Ordu 1'erdiko Meza, Setien Gotzaiaren itzaldi ederra... baiña frantsesek esan oi duten bezala «desfase» bat nabari zen.

Jendeak ez zuen tutik ulertu edo eta ulertu zutenek itzaldi «bixi» espero zuten.

PENTSATZEN DUGUNA

Alderdi on asko ikusi zen Arantzazuko billera orretan. Gotzaiaren deia askok erantzun zion. Zergatik? Gure gazteria, gazteria «gazte» ori oraindik lozorroan dago, ala gazteria orrek, benetan, Kristok eta Elizak zerbait serioerik esateko baduela uste du? Orra, ni erantzuteko gai ez naizen galdera.

Millakako bilkura batek berarekin du beti ondoren sikolojiko bat... ez gerala ari bakarka lanean. Gipuzkoan zehar badela beste zenbait jende, fedearen muiña serioerki aztertzen ari dena.

Taldetako lanetaz ez nuke ezer esan nahi, ez baititut ezagutzen. Egin ziren bildumetaz auxe bakarrik:

—Itzez politizatuta arkitzen da gure gazteria, egite etan ezezkooan nago.

—Politizatze orrek ez ote duen itzez behintzat beste alderdi batzuk aztertzea galeratzen.

—Kristau reflexio batek politikak zer esan nahi duen arkitu nahi badu, lehenik politika zer den aztertu behar da.

Politika ez da «liberazio» itza, gaur eta emengo ekintza baiño. Eta politikak bere reflexio autonomo bat behar du.

Danera: —Kristau izateak politikagintzan zer ikusirik baduela, konforme. Baiña, an ikusi nuena zera da: politika esan nahiko itzak irabilliaz (mujiko mentalidadea) politikaren muiña jaso dela uste izatea.

—Lanean ari direlako benetan politika zer den ondo dakitenak, ez dira ain erraz Eukaristi bat ospatzera joaten. Eta are gutxiago Gotzaiaren itzak entzutera.

BUKATZEKO

Gazteria berri baten bilkura izan dela pentsatzen dut. Asiera bat. Gutako zenbait lozorroak esnatzeko aproposa. Eta beste zenbaitentzako ere interesgarri izan dela, uste dut.

JUAN JOSE GOENAGA

Gipuzkoako Kristau gazteria Arantzazun

Gipuzkoako gazteria, lanean jardun ondoren, zerbitu esatera Arantzazun biltzekoa zela jakin nuenean, ez nuen zalantzik izan, han joan nintzen; zer esango zuten jakin gogoz egoen. Ez da txantxetako gauza Gipuzkoan zenbait gauzari buruz gaur serioerki hitzegitea. Jende asko dago hatzaparrak prestatuta. Hain leku txikian holako pentsakera ezberdinak eta kritikak daude! Horregatik nere baitan pentsatzen nuen: gazteri honek ba ote daki zer egin baher duen? Polemika nahi du ala triunfalista manifestazio batera doaz? Gauza al dira gaur herrian hoi buruz altxatu diren zurrumuru guziei erantzun bat ematen hasteko? Gipuzkoako egoera ikusita ez dago esan beharrik Arantzazuko bilerak esan nahi berezi bat bazuela, joaten zirenentzat eta joan gabe gelditzen zirenentzat. Jakin edo ez jakin, Gipuzkoako gazteri kristauak gaur esan nahi duen «hitza» gertatuko zen. Hara joan ginenak parte hartzea ez baino Euskal Herriko talde garrantziko batek ziona jakitera, zer ikusi genduen?

gaian girotu ez zirenak. Haurtxoak hitzaldi bat prestatuta zeukaten antolazailuek. «Zer da gaur eta hemen kristau izatea». Egia esan bide pobrea gai horri erantzuteko. Talde handi bat eta gainera kontzientziatu gabea batzen denean ez dago gauza onik. Entzun eta kito. Gero galdera bat edo beste egitea hizlariari ez da aski, alkarrizketa sortzeko. Nere iritzian hobe izango zen talde honi, Arantzazun bildu zirenetatik geienak-talde txikietan esnatzen hasi artean, pakean uztea. Gainera ez da gauza erraza holako jendetza goiz batean ibiltzea. Beste aldetik lehenik beren herrietan pentsaketari ekin ziotenak zeuden taldeetan eratu. Sistima hori onartzeak berak argi erakusten du kontzientzi berri bat erne-tzen hasi dela Gipuzkoako kristau gazterian: ez dute gehiagok erlijio baten jarraizale ohikerizko eta kritikako izan nahi; ez daude konforme beren fede dogmatikoekin eta prolematikoa egin dute. Benetan postura ausarta eta txalogarria: herri pluralista batean ez dago beste biderik. Ez kristautentzat eta ez inorentzat. Berak esan zuten «umeen» hitzaren fedean hazien fedea lortu

nahi dugu». Hori gauza zalla da. Ez da aski borondate ona, ez eta azterketa arin bat. Azterketa batek ez darma derrigorrez federa edo kristau mezu bat topatzera. Gutxiago, es-talita egon den mezu bat. Gipuzkoaren egoera prolematikoa, kristautaei bidea oso gogorra egingo zaie batez ere gizaldiak zehar herria kristaua izan delako. Hau ez da paradoja. Errazago ibiliko ziren herria kristau izaten ohitu ez balitz, herri pluralista izan balitz; pekatu guziak ez ziren kristauen gain etorriko. «Umeak ere jakin dute» kristautasunak dituela Euskal Herriko gaitz guzien kulpak, sorginkerietan ibiltzea dela fedea. Dugid gabe, gauzak ez dira hain argiak eta Gipuzkoan sortu den egoerak sikoanalisi baten beharra luke, bestela jendeak gauza guzietik sorginekin esplikatuko ditu. Hilaren 3'an milaka gazte joan ziren Arantzazura, beuren fedean oinarrituta hitz bat esatera. Baina milaka gehiagok gelditu ziren, atzo arte kristau deiturik, fede hori utzi dutenak, fede horretaz nazkatu direnak gainera. Nere iritzian, Arantzazun alkartu ziran kristau gazteak

ezin zuten zirkustantzi hau ahan-tzi, horrek gauza asko kondizionatu bai ditzake, hitzegiteko era, esate baterako. Nahi eta nahi ez, gazteri hori ez zen indiferentea kristau gazteak egin zutenaren aurrean. Kristau kontzientziaren erneberitze positibo bat bezala ikusten dute, edo ia hilean dagoen norbaiten dehadarra bezala, edo zentzugabe-ko sorginkeria bat? Batzara hori gauza ote zen Gipuzkoako gazte sinesgabe eta serioetan, alkarrizketa baten gogo sortzeko? Oraindik goizegi da erantzuna emateko. Ikusi egin beharko zertan gelditzen den Arantzazu. Alderdi positibo asko daude noski bilera horretan. Han hasi zenari jarraipen errealista edo egoki bat ematen asmatzen badute, gauza onuragarriak jaio ditezke Herriaren onerako. Baina oraindik ezin esan dezaket fedegabekoak Arantzazun kristau gazteak esan zutenetik alkarrizketera deitu gaituztenik. Ez dakigu oraindik zertan ikusten duten beren kristau egitekoa Herrian. Oraindik behar bezala sakondu ez dutelako? Ezin dutela? Nahi ez dutelako? Estimatzekoa da polemikaz beteta dagoen herri honetan Arantzazuko polemikan ez sartzea, eta partidismoz itozteraino dabilen lekuan triunfalista ez nahi izatea. Berak benetan kristau izatea gaur eta hemen zer den ikusi nahi izan dute eta burua pentsatzeko duen gizonagan, gauza handia da hori.

Asko insistitu zen fedea libera-zio meza bezala sinesten dutela, askatasunaren etsaiak autsi behar direla, etsaiak sarritan izen konkretoa duela, injustizia dagoen lekuan indarkeria kondenatzea inozente izatea dela, nun gauden ez dakigun artean fededunak ez gerala, etsaia maitatzea pakean uztea ez dela... Giar askoko gauzak baina Euskal Herrian auzo txiki batekoak bezala ezagutzen geranean ezin ote da konkretuago hitzegin, topikoak alde batera utzita, praxi baten bideak irekitzen hasi? Gipuzkoako kristau gazteriak nola egin nahi du hori, zer hartu-eman euki nahi duzute besteekin? Zein da zuek askatasunari, liberazioari damiozuten dimensio «berri» hori? Zer esan nahi duzute munduaren «Biharkotasuna» Jainkoaren erre-nua dela diozutenen? Nahi al duzute besteekin eta bentarijak gabe bilaketa bat hastean? Nola nahi dela ere, txalogarria da han hasi dutena baina, jakin dezatela hasi baino ez direla egin, errazena egin dutela. Norbaitek han esan zuen bezala, lehenengo «estazioa» da, gero etorriko dira beste hamairuak. Guk bien bitartean haintzat hartu nahi ditugun kristau fedean oinarrituta datozen gazte gipuzkoarrak, benetan beren fedea Herriaren kezka eta minel erantzun egiatzko bat emateko asmoz baldin badatoz.

Mikel Otermh



YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA



TRANSPORTES

azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alcantara, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Asteen iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.
Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 458813 eta 459723
Aptdo. 1381

bazkari onaren zainpargarria
eta txarraren estalgarria

**LA CASA
DEL CAFE**

Juan Irujo

San Marzial, 19 - Donostia 48101
Donostia

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10-Urrut. 417751-Ebuekoa: 422700 - DONOSTIA

DENDA USTUTZEA

JANTOKIRAKOAK
TRESILLOAK
LOGELARAKOAK

KRISAILU ETA OIN-OIALAK

MODURIK ONENEAN
DIRUA ESKURA

AMUEBLADORA

**EUZKERAZ
MINTZATZEN DA**

COMERCIAL HISPANIA

Donostian Irunen
Moraza, 14 eta 15nean San Marzial, 12nean
ERAMAN ETA EZARRI DEBALDE PROBINTZI BARRUAN

zure etxea
USURBILEN

sarrera
50.000 pezetan

ordainketarako
erretasun osoz

- ATXEGA-ALDE
- Gipuzkoan urigintza egokienean
- Lareun etxe bizitza berriak
- Orain duzu etxe bizitza egokienean aukeratzeko garaia.
- Bai astelen eta ostiraletan arratsaldeko 4-6,30 an, Etxebeste Kalean, 5-2.º
- Ikus maketak aurrerki kutxa probintzialaren etxean Donostiako ofizinetan ere edozein egunetan bear duzun argitasun edo informaziorik jaso zenezake.



CSC

CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA

Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkiña 426906-429942
DONOSTIAN

C. A. P. n.º 106.527.3

eguberri zozketa

4 etxe
4 bizitza

diru epea: lotazilla'ren 31 arte



Donosti'ko
Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

Edozein Libretetan sartzen diran milla pezeta berri bakoitzeko zenbaki txartela izango dezu eta Libretan dauz-kazun 5 milla pezetakorik aña zenbaki dagozkizu gaiñera.

GABON - KANTAK

Gabonkantak gure artean, beste gauza guztiak bezela, aldaketa aundiak izan dituzte. Eta oraindik ere aldaketan bizi dira. Eguzkia bezela; ez daude egote batean egon; ibillian dabilta beti. Gauza guztiak bezela. Gure Gabon-kantaen ibilli au —evolucio au— aztertu nai det gaur.

Gure Gabon-kanta batzuek, zahar-zaharrek dira. Beste batzuek berriagoak. Beste batzuek, berriz, oso berri. Olakoxe zahar-berritze izan dute gure Gabon-kantak.

Lau bat mallatara bilduko nituzke nik guztiak: zaharrenak, Gabon-agurrak; berriagoak, Misterio-kantak; urren, artzai-kantak, billantzikoak; eta berrien-berrienak, gaurkok.

Usarioa, Legea.

Usarioa eta Legea aipatu oi dute gure kantaen batzuek. Bestelako kantak ez bezela, zaharrenak dira "usarioa eta legea" aipatzen dutenak.

Dios te salve! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diyela.
Legiarekin konpli dezagun Urte-berriren sarrera.

Legearekin konpli. Euskalerrian Lege zan, Gabon-kantariak ibilli zitezela, Erria poztutzen Gabon-bezperan... eta berdin baita San Juanetan ere, eta Inauterietan... Oyartzun'en oitura ta lege zan Inauterietan (Iyotietan) Elizako ofrenda Mozorroentzat izatea, Mozorroai oso-osorik ematea... "erria pozten ibiltzen ziralako, eta ola, guztion arteko pake ta armoni onari laguntzen ziotelako", dio orduko paper batek. "Erria poztu", gaur txistulariak bezela.

Usarioa aipatzen du baita, beste kopla zahar batek ere, toberatako kopla batek, eztaietan kantatzen ziran toberatako kopla batek:

...toberak jotzera gatoz bost edo sei lagun.

Toberak jotzera eta libertittutza, ez uziatikan usariyua galtzera...

Usarioa ezta Legea: Euskalerrian

biok bat bait-dera. Lege zaharrek, usariotik datoz; eta usarioa bera ere lege da; usarioa zan Lege, Legea eskribitu baño len.

Kopla Zaharrek deritzaie legeko ta usariozko kanta oiei. Eta oietzek dira Gabon-kantariak zaharrenak ere. Gabonetan eta Urteberriz kantatzen diran Kopla zaharrek. Benetako zaharrek. Orain bosteun urte ta geiagoko usai sendoa darioten kopla zaharrek.

Benetan jakingarri bait-da kopla oien kanta-gaia. "Gabon-kantak" dira; bañan ez dute kantatzen Gabonetako Misterioa. Gabonak diosaltzeko, Gabon-agurrak emateko kantatu ori dira. Etxerik etxe. Bañan Misterioa geienez ere aipatu bakarrik egiten dute. Asieran aipatu. Eta gero, egunari dagokion diosal kristautarra eman etxe bakoitzari, ondorengo beste kopla guztietan. Diosal etxe-jaunari, diosal etxe-andreari, diosal etxe-ko seme ta alabai... bakoitzari lotretxo bat edo beste egokitxo botareaz...

Ori zan kopla zahar oien guna ta mamia.

Misterio-kantari.

Geroztikakoak dira, asi ta buka, Jaiotzako-ta Misterio gozoak, kantatzen dituzten koplak. Gernika-ingurukoak ezagunenak, bear bada gure artean. Gernika-inguruko Marijesiak. (Politak berak ere. Bañan n erri-kutsu gutxiagodunak). Bizkaiko Marijesiak gure artean; eta mendiz bestaldean, Noelak. Doctrina sainduz ondo anpatutako Noelak. Erri-kutsu gutxitxodun ezik oiek ere...

Billantzikoak.

Ba'litteke billantzikoak eta Marijesi-noelak, gutxi gora bera elkarrekin sortu ziran gure artean. Billantzikoak. Artzai-kantak. Bukolika-zati politik askotan Askotan irri-antzean —irri xamur eragiteko— sortuak. Erderaz ere berdin bait-dera. Izkuntza guztietako olerkaririk bikañenak erantsi izan bait-diote eskutadaren bat Artzai-kanta-sail oni.

Marijesi ta billantziko, ba'litteke elkarrekin batean sortu izanak. Bañan mamia oso elkarrengandik bestelakoa bait-dute. Marijesinoelak elizakoiak —kalean kantatzen di-

ran arren, elizakoiak benetan—; eta billantzikoak Elizan ere kantatu izan diran arren, kalekoak, oso kalekoak...

Parragarriak.

Billantzikotik zuzen-zuzen sortuak dira, berriz, beste oek. Billantzikoen artzai-kutsua nabarmenki ustelikatuz. Oroi arako donostiarrena Erregeen bizkarretikako itsukeri parreragille ura:

Iru Errege datoz
kale nagusitik,
tripak ardoz beteta
ezin egon zutik...

Oien antzeko bat arkitzen degu Azkue Jauna zanaren "Cancionero"-n, Ermuako Tomas Abadearen aipamena egiten duana —karta-jokatzaile ona bide-zan eta ardo-edale ez txarra, zalako Tomas Abade ori—; aipamen parragarri ori —ez Donostikoa bezain zarpatu baño— Marijesi baten barruan egiten bait-zan.

Ez oiek bezain parragarri, bañan bai Elizatik oso kanpora kantatze-koak ziran baita, guk txikitzen politik asko Oyartzun'go korutik entzuten genituan batzuek ere. Ona, adibidez, zatitxa bat:

Oyartzun'go maxterrak
nagusiya;ta;
(kapoyak eramatera alegia)
kontentu obez datoz
gaur Tenplo Santura.

Salto, brinko, konpañerua;
salto, brinko, ene seme:
zankuak arin eta
bera juan firme.

Parragarriak ziranez, Elizan kantatzeko erreberentzi-gabeak ziran. Gañerakoan etzuten beste akiakularik eta aitzakirik. Parragarriak izatea. Aldiz-aldiz, gatz-piper-puntta bat ere bai bait-zizuten lerro-artean.

Aipa ditzagun orain Gabon-kanta-mota guztiak, banan-banan.

KOPLA ZAHARREK

Ezagun-ezagunak diranez, bizparru besterik ez ditugu aipatuko Kopla Zaharretatik.

Bedeinkatua, alabatua
Aldareko Sakramentu Santua,
pekatuaren mantxarrik gabe
zeña dan kontzabitua.

Kopla oiek, esan degun bezela, zaharretakoak diran arren, ba'dute zenbait eraxkun geroztiko. Emen ikusten degun au, adibidez; XVII gizaldikoa, zalantzarik gabe. Oargarri da, benetan, nola bigarren erdian nahasten dituan bi Sor-kundeak, Jesus'ena eta Aren Amarena. Ez pentsa, ordea, nahaste au ain gauza bakana danik. Edonungo erri xumek ba'daki beste orrenbeste egiten. Jarrai dezagun:

Au aiziaren epela!
airian dabil orbela...
Etxe ontako jende leyalak,
gabon Jainkuak diyela.

Au Au bai benetan kopla errikoia! Errikoia, ta literaturaz izan ditek ederretakoa. Ezin bait-diteke diosal politikarik izan. "Gabon" bat emateko, lenengo, olako pinturaki bixi ta garbia, bi lerrotan:

Au aizearen epela!
(arako "sagardoaren gozoa"
bezela)
airean dabil orbela...

(Iru itzetan ez bait-diteke evocacio biziagorik eta osoagorik egin). Jarrai dezagun:

Lezo ta Errenteriyaa,
irugarrena Oyartzun...
Nere lagunak, Diostesalbe
garbuarekin erantzun.

(Olako kopla bat, erriak bestek ez daki ortzen: "Lezo ta Errenteriyaa").
Jarrai dezagun:

Diostesalbe! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diyela!
Legiarekin konpli dezagun
Urteberriren bezpera.

Iñoi "Eguberriren bezpera" esango zuten. Emen egiten da gañera len esan degun arako Legearen aipamen ura. Lege zan, Egueri ta Urteberriren bezpera jendeari olaxe agurtzea. Koplak kantari. Koplari ta koro. Amar-amahi gizaseme...

Ez bait-zan, ordea —ta ez bait-da gaur ere, Jaunari eskerrak— agurtzea bakarrik; izaten bait-zan eskupeko-jasote polita ere etxe bakoitzean, diosal ta agurtze-fruka ta sari... Oitura zan olaxe. Mozorroak ere olaxe egiten zuten Oyartzun'en Inauteritan Elizako Ofrendarekin... Eskupekoa jaso.

Eskupekoa jaso degu ta
orain abia gaitian;
"Adios-ikan" ez degu eta
agur, urrengo artian.

(Auskalo zer ezkutapen ezkutatzen dan "Adios" eta "agur" oien arteko nahaskillo-joku orretan...).
Bañan gatozen, berriz ere, arira. Begira, eguneko Misterioaren aipamen xume bat onako beste kopla onetan:

Urteberriren bezpera da ta
eskian gatoz atera,
Birjin Amaren Seme garbiya
dijualako Pontera.

(Erri xumeak ez daki, Lege Zaharreko Erdaiña zer zan; Bataioa zala uste du. Anacronismo txoragarria!).

Eta ondotik etorriko da, etxe bakoitza koplatzeko baimeneskea. Bene-benetako errikoia kopla auxe!

Zapata txuri, paperez;
endi denian baterez...
Nagusi Jauna, esan bizaigu
asiko geran ala ez.

Eta honen ondotik, bakoitzaren laudorioak. Ez goaz danak aipatzen. Naikoa izango da bat edo beste egitea. Adibidez:

Esku txuritan papera,
erreberentzi lurrera...
Lotsa gogorrez etorri gera,
Jauna, berorren atera.

Orroko or goyen izarra;
errealdian izarra...
Etxe ontako Nagusi Jaunak
urre gorritz du bizarra.

(Bai, bada. Aldareko Santuak berak bezelaxe, "urregorritzko bizarra").

Urregorritzko bizarra eta
zillar zurizko sorbalda.
Errealbikoz egiña dauka
Elizarako galtzada.

(Al-da esan-bearrik, olako kopla bat erriak beste inork ezin asma-tudezakeanik? Eta nolako antziña-kutsua daukatela gero koplatxo oiek! Orain bosteun-seireun urte izaten zuten urrezko bizarra Aldaretako Santuak: gotiko-garaian. Eta Elizarako galtzada errealbikoz kaltzatua izatea? noiz ta nungo ipuia ote-da? Nork esan?).

Eta olaxe beste koplatxuetan ere. Etxeko-andrearen Pazku-eguneko soñeko zazpi gonak dirala... eta etxe-ko-seme zaldunak bere kapa motxaren ertzetik zintzilik darma-zkan zazpi urre-txintzarriak... eta irrikitzen begira dagozkion zazpi damaen eguzkiak... eta etxe-ko alaba ederraren kutzako dote ederra... eta Apaiz Jaunaren esku zurietako kaliza, ta soñeko superpeliza... etab. etab.

Olaxe dana. Erdi-erdi-erdi jator.

Egia, erri-kopla oiek Oyartzun-inguruan egon izan dirala gaur arte sendotxoerki finkaturik; bañan egia, baita, gutxi edo geiago Santa Agedaz Bizkairanoiko guztian ere kanta izan dirala beti. Euskalerrri guztian.

Esan bear degu, baita, beti kantuz ematen dirala ere. Eta kantuz dutela —beren melodi ederreztan, dutela, alegia— duten bezelako izaera ta grazi jator.

—oOo—

Ez goaz orain Olentzaro bereziki aipatzera. Oitura bezela ba'dan arren, koplaz ta kantuz ez bait-da ain aipagarri izan ere.

Ala ere, bi koplatxo ipiñiko ditugu emen. Eta biotatik auxe atetako degu: 1) berri-antzekoak dirala, XIX gizaldiko bertsolariaren batek atetako kopla oiek; eta 2) parragarri bezela pentsatuak daukela —Donostiko Erregetakoaren antzera; jan-komentu alegia, etxetan eman oi dan sari ta eskupeko-zurrian lotsagabe pentsatuak. Ona:

Olentzaro juan zaigu
mendira, lanera,
intentiyaurekin
ikatx-egitera
Adittu duenian
Jesus jayo dela,
korrika etorri da
parte ematera.

Olentzaro inondik
ezin dugu ase;
osorik jan dizkigu
amar zerri gazte,
sayeski ta solomo,
makiña bat este...
Jesus jayo da eta
kontsola zaitzete.

Beste itz bat. Gaur uste degunez, Olentzaro au, Noeltzaro da —inoizko Noeltzaro'ren metatesis, atzekoz-aurre bat, erderazko aguilnaldio, aguilando'ren metatesis dan bezelaxe—. Eta "Noel'en aroa edo garaia" esan nai du, ots Olen'en aroa.

Beraz, gure Olen au, iparraldeko Noel (papa Noel) bera da. Beste Zapantzar Jauna, Saint Pansard dan bezelaxe. Iparraldeko norki batzuek bait-dera biok. Iparraldekoak, gure arteko beste zenbait norki ta zerki bezela. Bañan —goazen gure arira, ta— bi norki oiek, gure artean parragarrituak ikusten ditugu, jateko ta edateko aitzaki bihurtuak. Donostiko Erregeak bezela. Berez olakorik merzi etzutenak, eta ab initio ola etziranak. Noel beneragarria, Olen parragarri bihurtua. Koplak ere berdin. Ori da esan nai nuana... Izan ote-zuan antziña inoiz gure Olen onek orain baño kopla egokiagorik? Auskalo!

(“EGAN”dik jasoa)
M. LEKUONA'K

Perfumeria

Urbieta

PERFUMERIA URBIETA'KO OLASKOAGA'TAR FRANTZISKOK

ETA SARASOLA'TAR EDURNEK

EGUBERRI ZORIONTSU ETA URTEBERRI ON. OPA DIZUE

EGUN AUETAN

Urbieta, 14

Urrutizkiña: 41 93 78

SAN SEBASTIAN

SEASKA

ZUEN AURTZOENTZAKO SOINEKOAK

Alameda, 24

San Jeronimo-ertzean

Urrut.: 41 18 54

— DONOSTIA —

OLENTZERO

Kristautasunaren albistari

Badira berrogeita hamar urte Olentzerotaz berri batzuk lenengoz argitaratu nituela. Geroztik orain dela amasei urte eman nuen Gipuzkoako Aldundegian ontaz beste itzaldi bat. 1956 garren urteko EGANen dago argitaratua.

Olentzerok ez ditu nun-nai izen berdiñak. Olentzaro, Orentzago, Onentzaro, Orantzaro, Orentzaro, Orontzaro, Onontzaro, Xiularo, Xubilaro, Kalerre, Galerre, Puttierre eta abar deitzen zaio.

Itza bera nundik sortua dan? "aro"k badakigu "aldia" edo "garaia" adierazten duela. Baina nundik dator "olen"? Latineko "oleris" edo erderazko "Noel"dik?

Dana dala Olentzero urte garai bat da, Eguberri garaia ain zuzen ere. Gabonez etxeetan eta errietan sarturik Jesusen jaiotzaren albistea dakarki.

Olentzero urte aro bezala. Jentil aroko zenbait uste, sineskeri, oitura eta gertakizun indoeuropar erori ziran Olentzeroren jirabiran.

OLENTZERO URTEAREN BUKAERAREN IRUDI

Eskea egin ondoren erriko plazan erretzen dan lastozko giza-irudi bat da Olentzero Lesakan, urteazarez.

Su aundiak egin oi dituzte apalioan Arabako zenbait errietan urteazarez. Zaragi zaarrak erretzen dituzte eta makilea baten muturrean zintzilik dituztela "erre pui erre" otseginez, batetik bestera, ibiltzen dira. "Erre ipurdia urte zaarrari, erren esan nai dute. Ortik Putierre itza. Esate baterako, Amaritan, Gazeon eta Onraitan.

Ullibari-Ganboan eta Argomani-zen, berriz, Kalerre. Salbatierran eta Alegrian Galerre deitzen zioten urteazarraren irudiari. Irudi ori errez amaitzen zuten urtea.

Olentzerori eransten zaizkio Gabon gaueko eta urteazarr gaueko beste zenbait sineskeri eta uste ere. Gau osoan pizturik iraungo zuan enborrari su emateko oitura zau gabonetan. Ortik Suilaro, Xubilaro, Xiularo eta Sukaro itzak. Subil eta aro dituzte beren sus-traitzat.

Gabonetako sunbillari Oiantzunen Olentzero-enbor esan oi diote; Onontzaro-mokor, Larraunen; Gabon-zuzi, Zegaman; Porrondoko, Salbatierran; Subilaro-egur, Aezkoan; Gabon-ubil Antzuolan eta Abadiñon; Sukubela, Liginagan; Gabon, Trespentesen.

Llodiolik asi eta Suleko Liginagariño pizturik dago Euskal Erriko erri askotan Gabon gaueko enbor au.

Sunbil, orrek, gabon-gauetz edo urteazarez sutan egon dalako, in-

dar berezia du. Elduaien su aundia egiten dute gabon gauetz; bestela Olentzero, igital bat eskuan, kezulotik beera jaxten dala uste dute eta etxeokak il. Piztutako enborren gainean ibilarazten dituzte abereak Ezkizoren, Oiantzunen eta Arakilen. Orren bidez urte berrian abereak ez direla, ezbearez, galduko uste dute. Ekaitz gaizto eta odei aserreak urrutzeko indarra Salbatierrakoentzat. Abereak sendatzeko kemena Aezkoan eta Olaetan.

Amorebietan uste dute erbiñu-reak ez diela etxekoei kalterik egingo, eta beren abereei ere, gabonetan sunbilla pizten badute. Liginakoak ume-urruak sorrazten dizkiotela ardiei uste dute. Soroko zomorroak eta arrak galtzen dituen ustez lurrari botatzen diote sunbilla-aren autsa Ibarrurin.

Olentzero-enbor edo Sukubela eguzkia sorrerazteko eta indartzeko indoeuropatarren errialde guztietan pizten zuten sunbilla da. Eguzkiaren itzulmugan atontzen eta pizten zituzten suak, oen bidez eguzkia berritzearen. Sua eguzkiaren antzeko izaki bat bait da, suaren indarrez eguzkia iraundu nai zuten, lurra bizierazi eta gaizkin guztiak aldentu. Lau milla urte eta geiago dituzte, agian, eguzkiarekiko oitura auk. Asi Indiatik eta Portugaleraño edatzen dira oitura auk: Persian, Grezian, Ipar-Lurraldean, Alemanian, Italian, Inglaterran, Frantzia eta Españian barna.

OLENTZERO MITOLOGIAN

Beran, Oiantzunen, Pasaian, Andoainan, Elduainen eta inguru oietako beste zenbait errietan, Kristo jaiotzaren albistea otsegitera menditik beera datorren gizona dala diote Olentzero.

Erri batzutan albistari oni, Kristoren iragarleari, Mairna deitzen diote; beste batzutan, berriz, Jentilla. Ikusi zuten esaten danez orduko jentillek Kristo munduratzaren ezaugarriren bat edo odei ditzirafiren bat edo euri edo elur edo elur edo izarren bat mendiri gaine-tan. Ona nik entzunda bezala:

"Argaintxabaletako zelaian dantzaz omen zabiltzan Aralarko jentillak beren jai egun batez. Sortaldetik agertu omen zan laño ikusgarria; eguzkiak ainbat argi zabaltzen omen zuan. Laiñoa urretzen eta jentillak beldurtzen. Ba omen zuten zaar jakintsu bat beren txabolan. Deitu ari. Betazalak eroriak bait zeuzkan. Ezin ikusi. Jaso omen zizkioten betazalak. Laiñoa ikusi zuenarik, deadarka asi: "Sortu dek Kixmi; gure azkazia galdua dek. Jauzi nazazute maillo-tik beera".

Kixmi, jentillen izkuntzan, tri-mua omen da: izen orrezaz Jesu-kristo adierazten omen zuten. Laiñoa urreratzen zijoan; jentillek beren maixua maillo-tik amilkatu omen zuten beronen aginduz. Bes-

teak, berriz, laiñoaren aurretik iges sartalderuntz. An, Arraztaranen, arripilla baten azpian sartu omen ziran azkeneko jentillak beren azken-obian". Oraindik toki artan dago jentillen obia, trikuarria. Jentillari du izena.

Baiña bat gelditu zan eortzi ga-be eta bizirik. Menditik beera jaxi eta Kristoren jaiotzaren berri eman zuan ibarreko eta erritako jentillen artean. Auxe zan leenengo Olentzero edo Euskal Erriko aurreneko mixiolaria".

OLENTZEROREN IRUDIA

Ez da aaztutzen gertaera ori Euskal Errian eta urtero gogoratzen eta berritzen da. Kristoren berria dakarkian ikazkina edo artzaia da Olentzero edo mendijentilla, Gipuzkoan eta Nafarroan. Baiña egiazko Olentzero orain ez da bizi eta aren irudiko baso-mutil bat egin bear da urtemugaz aren albistea gogoratzeke. Irudi ori bizkarrean dutelarik egin oi dute gazteek eskea.

Igitala eskuan duelarik janzten dute Olentzero Larraunen, Lesakan, Leitzen eta Arakilen. Kantuz egiten da eskea. Onela da Oiantzun-goaren asiera:

Olentzero jua zaigu
Mendira lanera
Beregan al ustez
Ikatz egitera.
Aditu duanean
Jesus jai dala
Lasterka etorri da
Adieraztera.

Berastegin eta beste zenbait errietan, berriz, bizkarrean sorta eta eskuan igitaia duala azaltzen dute.

Au da Olentzero. Leku batzutan ongi etorri ona egiten zioten. Bestetan beldurrez eta errezelo txarrez artzen zuten. Azkenean ontan bukatzen dute ipuinetako gizonak, umeak beldurtzeko erabiliz.

Baiña beste zerbait da asieran Olentzero: euskal-kristau pentsaeraren irudi, leenengo kristauaren irudi, erriarren aurreneko mixiolari.

Olentzero kristautasunarekin batera euskal kulturaren sartzan dan gizona dugu. Ez da arritzeko kristautasunari abegi ona egitea Euskal Errian. Euskaldunak antziñatik, leendik, gizonaz eta munduaz zituzten uste eta iritziak sendotzen bait ditu. Bazuten teknikaren eta ekonomia-aren gainetik norbait bazegoan ustea.

Uste an sendotu zuan kristautasunak, uste oni zeuzkan gaitzak kendurik.

J. M. Barandiaran

